


PATRI URKIZU

1936KO SANTAKRUTZAK



Patri Urkizu

Izpirituaren zaindaria oroimena da

1936KO SANTAKRUTZAK

Mila bederatzirehun eta hogeita hamaseiko Santakruzak. Ongiasko gogoratzen zait, bai. Nola ez oroitu, urte hartan preziso gerra piztu zen eta.

Martxoan jaio zitzaigun gure azken umetxoa eta Joxeba deitu genion. Izena errejistroan ezartzeko arazorik ez banuen izan, jueza laguna nuen eta, ez hala elizan, Don Eusebio bikarioak galdetu zidanean zer izen jarri behar nion eta nik Joxeba eman nahi niola, haserre erantzun baitzidan:

— José en cristiano, Joxeba en nacionalista.

Badirudi honetan gutxienez orduan baino aurreratuagoxeak gabiltzala gaur. Aitajauna, nere adiskide Joxe Basurko mutrikuarra, «Joxe Marru» deitzen geniona, Pasaiaiko kaian elkarren ondoan arrantzan makina bider ibiliak. Amandretako koinata Marikrutz hautatu genuen.

Garai nahasiak ziren haiek eta udaberria bero xamarra hasi bazen, uda kixkalgarría gertatuko zitzaigun. Begira, apirilean Gipuzkoan egin ziren aurre—hauteskunde batzuk eta haietan abertzaleak hogeita hamar herritan atera ginen irabazle, karlistak hamabitan eta sozialistak bitan. Gurean Benantxio Salaberria Intxaurrendieta hautatu genuen.

Santakruz txikitan, maiatzaren hiruan, ohi bezala izan genituen gure festak. Jendea erruz etortzen zen aldameneko herrietatik, eta Nafarroatik ere bai Meza Nagusira. Honetan izaten ziren sermoi eta abesti ederrak entzutera, erroskila mordo bat, Santokristoren estanparen bat erosi eta eguna pasa.

Koroan Garbizutarrak asko luzitzen zuten, oso abeslari onak baitziren, eta batek organoa, besteak kanta, benetan iaioak ziren.

Sermoia ere apartekoa izaten zen. Begira, egun horretarako kanpotik ekarrarazten zuten sermoilari ospetsuren bat eta honek latinezko esaldiez hasten

Patri Urkizu

zuen bere jarduna, gero, noski, euskara ederrean jarraikitzen ziolarik. Urtero gutxi gora behera ixtorio bera kontatzen zuen, alegia, nola Santa Elenak aurkitu zuen Gurutze Santua, nola bi lapur gurutzaturen erdian gurutzaturik utzi zuten hila Jesus judutar gogorak, eta Jesusen gurutzea desohora ez zezaten lapurren gurutzeekin nahastu eta gorde egin zuten beren ahalegin guzian. Nola Enperadore haundia zen Konstantinoren ama Santa Elenak hartu zuen hura bilatzeko asmo eta gogoia, eta abiatu zen Konstantinoplatik Jerusalemgo hirira. Nola hemen Venus zikin edo deabru beltz gaiztoaren elizetxe bat aurkitu zuen, zeinen harripetan behar zuten izan gordeak hiru gurutzeek. Nola harripil haiek kenarazi zituen eta haien pean zeutzan hirurak nahastuak. Jesusena zein zen ezagutzeko hango patriarka San Makariori biziaz etsirik zegoen andre bat erakarri zion, eta honi buruan ezarri zioten behin bata eta gero bestea. Baina hirugarrena ukitze berean utzi zuen honek gaitzik gabe eta guztiz sendatua, hala ikusi zutelarik hura zela Jesus maitagarriaren gurutzea...

Eta luze jotzen zuen horrela, luzexko, hiru ordu laurden gutxienez, baina ohiturik geunden.

Festa, goiz goizetik hasten zen dianarekin eta txistulariekin. Zinta karrera eguerdian eta gero arratsaldean dantza bostetatik zortzietara «Los Incansables» musika bandarekin.

Zintakarreretako bezperatik Mariatxoren dendan eskaparatean egoten ziren esposizioan herriko neska gazte eta zaharrek kolore eta hari ederrez brodatutako zinta pollit batzuek, eta plaza erdian ipintzen ziren zintzilik zurezko tramankulu batetik eta haiek harrapatu nahiz bat baino gehiago bizikletatik erortzen zen jendearen irrifarren artean.

Musika bandaren buru Polentzi Gezala zen. Bazekien honek jotzen bonbardinoa, klarinetea eta kornetina ere, beste zenbait instrumenturen artean. Daniel Garbizuk ere, ongitxo jotzen zuen klarinetea, honetaz gain tenore aparta zen. Joxe Berasarte eta Jose Luis Garmendia saxofoiarekin ongixko moldatzen ziren. Atanasio Berasartek kornetina. Fermin eta Jose Pikabeatarrak ere iaioak

1936KO SANTAKRUTZAK

ziren kornetinarekin. Artolak tronboia, Martin Alberdik tronpa, Adurizek klarineta, Veintemillasek bajoa, Txepetxa Errenteriakoak bonbardinoa, Etxenike Donostiarrak errekintoa, Uranga Pasaiakoak erredoblantea eta anaia Eusebiok tronboia. Beraz denetara hamabost lagun biltzen ziren, beti animoso eta inoiz nekatzen ez zirenak, inguruan eta atzetikan segika mukizu pila saltoka, elkarri bizkarretik helduz eta erromeriara joango balira bezala. Haiek bai ez zirela inoiz nekatzen!

Jai hartan gogoratzen naiz, *El Día*, Donostian ateratzen zen egunkaria erosi nuela, euskaraz ekartzen baitzuen beti zerbait, eta ez *La Constancia*—k bezala, karlista amorratua hau, eta tradizioa asko goraipatu arren sekulan euskaraz tutik ere ekartzen ez zuena.

Albiste emaile abertzalean Aitzolek langileriaren gainean idazten zituen artikulu ezin ederragoak irakurtzen nituen. Behin elebitasunaz, bestean antzertiaz, gaur poesiaren egunaz, bihar Euskadiko pelota txapelketaz, eta etzi euskal langileriaz, hau eta hura, denak abertzaletasunez eta kristautasunez beteak. Baina buruan dauzkadanak oraindik Atarrenek ondutako bertso batzuk dira, Maiatzaren Lehenari buruz, lanaren eguna zela eta ez zela, jai egin behar zela eta izan ziren eztabaidez. Umorerik ez zitzaion inoiz falta hari:

*Batzuk lanian madarikatzen,
besteak jolasian alai,
au Fiesta del Trabajo dala
ziri ori, amunai.*

Geuk geure modura zelebratu genuen eta ez Maiatzaren Lehenean, hogeita hamaikan baizik. Begira, ni eusko langiletakoa nintzen eta Aberri Eguna egun horretan ospatu genuen. Eguneko irabazia biltzeko aukeratutako eguna zen eta kontatuko dizut nola ibili ginen.

Patri Urkizu

Goizeko seiretako ikurrina ipinia geneukan Batzokiko balkoian. Zazpiretan poxpolin, ezpatadantzari eta txistulariek herrian barrena biribilketa eman zuten alborada eta beste doinuekin. Bederatzietan pelota jokaldia, oiartzuarrak lezoarren kontra, hain zuzen. Asko kostata baina azkenean Garmendia eta Etxegaray lezoarrek irabazi zieten tanto bategatikan Azpiroz eta Mitxelenari. Hogeita bi eta hogeita bat, beraz. Bazen ikusle franko, bai, plazan.

Hamarretan Meza Nagusia, eta hamaika t'erditan estropadak. Jakin, badakizu nola Bilbo aldean ere ibiliak ginen, baina bideak ez ziren oraingoak bezalakoak eta leher eginda, erdiak ohiturik ez eta erdi minzuriak jota, gorakoekin eta guzti ibiliak, nahiko pattalduta atera baitziren.

Orduan gure herrian afizio haundia zegoen arraunketarako. Orain baino gehiago. Batel estropadak izaten genituen kaian. Lau arraunlari, ankekoa, atzekoa, erdikoa eta lemazaina. Ziabogak oso inportanteak ziren, hiru ematen baitziren. Errotetan bi eta Puntalean bestea. Hortxe lohitegi haundia ageri zen mareak estaltzen zuena. Lohitan ibiltzen ziren garai hartan ere mutil koxkorrak eta emakumeak, beso batean otarretxoa eta bestean ailtxur motx—motxa lohi mordera harrotzeko, eta irteten ziren txirla eta muskuiloak berehala otarretxoan sartzeko. Beste batzuek esku—atzaparrekin altxatzen zuten lohi zulatua eta behatzez ekartzen zuloatik txirlak. Xixare eta ixkira bila ere ibiltzen ziren beste batzuk, baina marea gora lohia estaltzera zetorrenean handik denak harrapatutakoarekin alde egin behar izaten genuen. Batelikoak poliki—poliki ur gainean gelditzen ziren, marearekin batera gora egiten zutelarik pabetan lasa lotuak, plixti—plaxt dantzan. Ezagutzen duzu aingiretara joan zirenen izkirimiri hura?

Bada, begira. Behin joan omen ziren bi gizon aingiretara eta esan zion batek besteari: — *Aizak, bi, poto huts bortan aingiririk badagon ikus zāk.* — *Ez zēgok.* — *Nola dakik?* — *Herorrek esan dukelako.*

1936KO SANTAKRUTZAK

Gure Borda izenarekin bi koadrila atera ziren eta Alaitasuna izenez beste taldea. Arnasa estu eta izerdi franko bota genituen, bai egun hartan, baina azkenean txanpa luze baten ondoren guk irabazi genuen bandera.

Gero kukainak ere izaten genituen baraderoan. Zuhaitz etzan, azalik gabeko eta irristakorraren puntan bandera bat izaten zen eta hura hartzen zuenak saria jasotzen. Iritsi baino lehenago makina bat uretara erortzen zen. Ospakizun hauek Andres Enea izena zuten almazen haundi batzuen aurrean egiten ziren marea goian zegoenean. Paraje honi baraderoa deitzen zioten eta izen hori bertako nagusia Andres Saez de Parajuelo zelako ipini zitzaion.

Sagardotegi mordoxka bazen garai hartan, eta, beraz, ez zitzaigun lekurik falta irabazitako kopa bustitzeko. Garai hartan Olatzarren eta beste baserri gehiagotan ere baziren tolaireak. Amuntene, Bordatxo, Errekalde, Lopene, Matejoane, Txatxamendi eta Urrullon. Kalean berriz, San Juan kalean Bonifazio Salaberriarenean, kale nagusian Andreseneko—Tolarieta etxean eta Maripoxeneko sotoan. Eta sagardotegiak ere baziren: Beti Ondo, Sagar Zulo, eta Gure Borda. Hemen biltzen zen jenderik gehiena, beraxe baitzen haundiena, eta gainera frontoi itxia ere bazeukan.

Hantxe kantatu genituen Tomas Garbizu denen buru zelarik, honen anaia Daniel denen gainetik nabarmentzen zela, eta zuela urte batzuk trenak harrapatu eta hil zuen anaia Zubigar olerkariak Lezoko arraunlarientzat ondutako bertso hauek besteen artean:

*Ez nuan uste Lezon bazanik
arraunketako gizonik,
baña badira asko ta onak
iñork ez uste izanik,
orreatikan niozkateke
bertso batzuek jarri nik.*

Patri Urkizu

*Gaztietako patroya zitian
Isidoro Irastorza,
zuzen joan zihian bañan alperrik
bestian zegon—ta gaitza,
baña egiyak danak zenduten
atera ugari patza.*

*Beste ontziyan patroï zana zan
Joxe Migel Salaberri,
bidean ziran zuzen okerrak
ibili zuten an larri
baña lau birak artuta beintzat
au zan aurrena etorri.*

*Oso ederki egin zenduten
nere Lezotar maiteak,
kalterik beintzat ez dezute—ta
ez batek eta ez besteak,
gañera beti lagun zerate
bai zarrak eta gazteak.*

Arratsaldean bostetatik seiretara Eusko Erromeria, eta ondoren Batzokiko Antzeztaldeak Dotrinan, Goiko Elizako atzeko partean, pertsianak jaitsita korupean gelditzen zen une hartantxe antzezemanaldi ikusgarria. Ustedut Endrike Biarren *Euzko Gogoa* jokatu zutela. Amaitu zenean funtzioa denok zutik *Gora ta Gora Euzkadi*, eta *Agur, Jaunak* txapela eskuan kantatu genuen.

Baina festa eguna agudo pasatzen da eta lanera bueltatu beharra zegoen. Nik, garai hartan Guittet—eko konpainia frantsesean lan egiten nuen. Lan sariak zirela, soldaten goiti—beheitiak, lege berrikuntzak... horrelako arazo eta saltsetan

1936KO SANTAKRUTZAK

nenbilen, ez nere borondatez Eusko Langileen Elkartasunean halaxe erabaki zutelako baizik. Ongi atera ginen borroka honetatik Axentxio Lasa lagun neukala, eta On Martin Lekuona Errenteriako koadjutorea aholkulari bikain gisara. Baina pozak, tamalez, ez zigun luzaro iraun.

Lau hilabete kunplitu berriak zituen gure haurtxo txikienak gerrako lehen hotsak entzun genituenean. Saltsa—maltsa, buila eta sesio, eztabaida, iskanbila ugari bazebilen ere ordurako herrian. Behin ezkerrekoek hau egin zutela, hurrengoan eskuindarrek beste hura, eta noski, tartean euskaldun gaixto franko ere bai. Karlistak eta abertzaleak, zuriak eta gorriak, denak anaiak izaki jainkoaren lege aurrean eta denak borrokan. Egia esan, tristea zen benetan herritarren arteko, anaia anaiarenkontrako giro itsusi hura.

Egun haietan iritsi zen agindu bat goiko agintariak bidalita Frente Popularra izendatu eta eratu egin behar genuela herrian zeuden indarrekin. Alderdikoek, komunistek, ugetekoek eta eusko langiletakoek behar genuen frente hori osatu. Izen askoren artean nerea ere hantxe azaldu zen. Guk ez genuen utzi nahi herria gorrien eta anarkisten menpe eta orduan sortu zitzaigun makina bat komeri. Patti Lopetegui, Fernando Intxaurrendieta, Tito Labordeta, Iñaxio Pikabea, Benantxio Salaberria eta ni tartean ginen.

Guda aurrera zihoan. Faxistak odol—zale amorratuak agertzen ari ziren. Han hemenka baso itzaltsuetan edo sasia gorde basurdearen gisa edo azeriaren tankerara gutxiena espero zenean azaltzen ziren beren odol arrastoak non—nahi utziz. Aspaldian ez genuela, egunkariak halaxe zioten, horrelako hilketa basatirik. Gezurra iruditu arren hainbeste urte pasa eta gero, karlistarrak gero eta bortitzago altxatzen ari ziren, baina oraingoan ez erregearen edo euskal foruen alde borrokatzeko, faxismoak bere kausarako irabaziak baizik. Eliza defenditzera zihoazela errepublikanoek eta komunistek komentu eta eliza guztiei su emango zietenaren aitzakian.

Guk batu egin behar genuen, militarrek Gipuzkoan sartu ez zitezen. Sozialisten, komunisten, abertzaleen, langile guztien eta gure agintarien esanak,

Patri Urkizu

aginduak zintzo bete. Ordurarte betetzen ari ginen bezala, noski. Zintzo, irmo eta leial Errepublikari eta Erlijioari, eta ez altxatu ziren asaldatu haiek bezala. Ez al ginen bada gu beraiek baino kristau eta katoliko zintzoagoak, eta langileago, euskaldunago? Dударik batere ez. Langileen eta militarren arteko eztabaida zen hura, baina ez nolana hiko, hitzezko sesioa, odolezkoa baizik.

Zoritxarrez abuztuaren hasieran ja Baztango ibarraz jabetuak ziren faxistak, eta bere menpean geldituak ziren abertzale eta errepublikanoak gogorki zigortzen zituzten. Iruñean bertan plazaratzen zen egunkari katoliko eta abertzalea, *Diario de Navarra* izeneko itxi egin zuten.

Irunen defentsa gogorra egiten ari ginen. Sarrera galeraztearren Enderlatsako zubia moztu genuen, baina dena alferrik gertatu zen muniziorik gabe ezin baitzen luzaro iraun. Oiartzungo mendietatik lehen aldian sartzen ahalegindu ziren baina baja ugariarekin erretiratu behar izan zuten. Aiako harrietan, Pikoketan, Erlaitz eta Pagogañan talde ezberdinak zebiltzan banatuak.

Oiartzun aldera igarotzen zuten uda markes eta militar ospetsuen familiak, hala Miraflores eta Laguna, Barrios eta Solchagatarrak. Beldur ziren Erreterria eta Trintxerpeko taldeak igotzen zirenean herrira, karlista fama baitzuen honek, baina abertzaleek dena kalman, kontrolpean zegoela adierazi zieten bai batzuei eta bai besteei. Eta halaxe zen, Solchaga, Iruñean komandante militar errebeldea zenaren emaztea joan zitzairen alderdikoei laguntza eske, eta hauetako batzuk han egon ziren zaintzen eliza ez ezik faxisten zenbait etxe. Baina sartu ziren hauek, bidean bidegabekeria izugarriak eginez, astelehen batez Beorlegi koronela buru zutela herriko plazaraino. Aurrez—aurre agertu zitzaizenean apaiza, galdetu zion militar batek eskuan paper bat eta bertan pertsona zerrenda idatzia zeukanak:

- ¿Usted será nacionalista vasco, no?
- Sí, señor.
- ¿Cómo se llama?
- José Domingo Larrañaga.

1936KO SANTAKRUTZAK

— Veamos. Sí, aquí viene en la lista.

Muxika apezpikuaren kontra birao izugarria boteaz elizako kanpaiak aidean jartzea agindu zuen. Bikarioa detenitu egin zuten baita zerrendan ageri ziren guztiak, eta norbait etxean falta bazen iheslariaren gurasoak edo familiakoren bat, hauek zaharrak izanagatik berdin zitzaien, preso hartzen zuten. Beldarrain alkatea ere kartzelatu egin zuten eta ordeztu Zalacain karlista ezarri. Preso hartu zituzten andreen artean Beñardo Epelderen ama, andrea eta ahizpa zeuden, bestaldera ihesi joana zelako hura. Erreka—Txikiko bi alabak, Maria Luisa eta Dolores burua soildurik plazan paseatzera behartu zituzten.

Halere bizirik zeuden, eta esaten zuten batzuek Iruñeko kartzelan ja fusilatu zuten, besteen artean, adibidez, Anjel Arizmendi. Beste batzuk Artikutzako bidean bertan. Antziyeko semea Aldako baserri ondoan tiroz akabatu omen zuten. Altxabarreko auzoan ere beste bi. Lekuona anaiak, eta beste hainbeste gero betirako desagertu zirenak, betirako hilik edo bizirik egongo ote ziren zalantza utzi zutenak...

Solchagaren emazteak, noski, ez zuen orduan deus ere egin hauen bizitzak salbatzeko, bere esku egongo zen zerbait egitea, jeneral rebelde baten emaztea izanik... Lotsagarria! Baina tamalgarriago oraindik Arizmendiren etxean gertatua, bertan bizitzen jarri baitziren eta hantxe ama—alabak hiltzaileak zerbitzatzen egon behar...

Garai hartan mundu guztia ibiltzen zen eskopeta bizkarrean. Edo zeukanak edo baten bat lortzen zuenak, behinik—behin. Esate baterako Pasaiako Juventud Libertaria delako taldean neska gazteak ere eskopeta bizkarrean ibiltzen ziren eta oso gustokoa zuten oihuka, tiroka eta kantari kalez—kale, batetik bestera ibiltzea. Pikoketa aldera Erromeriara bezalaxe joaten ziren. Hara igo, han egun osoa pasa behatzari gustua emanez, makina bat bala alferrik galduz, eta aspertzen zirenean fusilak eta guzti bizkarrera bota eta herrira jaisten ziren. Hemen tabernaz—taberna basoerdi mordoxka edan,—gu ere ez ginen makalak horretan garai hartan—, eta zintzurra bero—bero zutenean hantxe

Patri Urkizu

hasten ziren deihadarka, ¡Viva la Dinamita! eta ¡Viva la Libertad! Riegoren himnoa, Internazionalea, eta honako beste kanta hau ere abestuz:

*Euzko Indarra no tiene miedo,
no tiene miedo, no tiene miedo,
Euzko Indarra no tiene miedo,
no tiene miedo al invasor.*

Inork ez zion gerrari tankerarik antzematen, baina espero zitekeena gertatu zen. Oso eskas genbiltzan munizioz eta ez zen nahikoa, noski, beldurrik ez izatea, bibaka, oihuka eta goraka ibiltzea. Iskiluak, armak behar genituen eta zer egin genezakeen txispa edo eskopeta eskas batzurekin, arma askoz ere gehiago eta hobeagoak besteek bazituzten?

Bazen tren arrunt bat burnizko txapaz josia, tiroetatik estaltzeko. Hamaika joan—etorri egin zuen Donostiatik mugara eta hemendik hara, eta Arkalerraino iritsi ziren faxisten eta karlisten kontra tiroteo franko gurutzatu zituen, errepidea har ez zezaten.

Bestalde, faxisten España eta Almirante Cervera gerra—untziek noiz—nahi bonbardeatzen gintuzten beren kainoiekin eta polliki—polliki ikara nagusitzen joan zen inguruetan. Obus batek Maternidadeko Etxea desegin zuen Donostian. Ez zeuden deus ere errespetatzeko haiek. Abioiak Aiako Harritik agertzen ziren gero eta burrunba ikaragarriagoarekin Oiartzun, Errenteria, Lezo eta Pasaiako portutik heriotze doinu, orrua eta negarra zabalduz. Jendea beren etxeetan, metazpietan eta tuneletan gordetzen saiatzen zen. Sotoetako ateondotan ere koltxoiak ipintzen ziren, badaezpada, inor zauritu ez zezan bonben metrailak.

Agintariek, horien artean Indalezio Prietok betiko leloa errepikatzen zigun, hiru egun gehiago erresistitzeko, eusteko oraindik pixkat gehiago, halako batean era guztietako errefuertzua iritsiko zitzaizkigula eta, baina bere

1936KO SANTAKRUTZAK

izenarekin bat izatearren edo, beti "prieto" eta estu ibilki, inoiz agindutakorik ez zigun, ez, bidali. Estuago zebiltzan oraindik Irun aldean eta azkenean irailaren hiruan erreketete, lejonario eta moroen menpean erori zen mugako hiria.

Ez zitzaien aski izan *No pasarán, no pasarán* kantatzea Moskuko Plazan, ukabilak jasoaz zerurantz, azkenean sartu egin baitziren eta nola... Dena erre eta kixkaliaz.

Ke, tiro, su eta bonben artean sartzen joan ziren eta Amuteraño iritsi zirenean Hondarribiko jende zenbait, larri eta estu, ahal zituzten gauzak hartu, batel, txalupa, txintxorro, baporetara igo, bakoitzak ahal zuenera, eta han joan ziren batzuk arraunean, besteak motorretan, tropeletan Hendaiaiko hondartzaraino. Sortetxetik kanpo baina gutxienez bizirik.

Guadalupeko fuerte inguruan gerra itsasuntziek botatako bonba pila erortzen ari ziren, eta hura zaintzen ari ziren errepublikanoak hangoak berea egina zuela konturatu zirenean, izugarritzko nahaspilan ihesi egin zuten. Antza denez, azkeneko momentuan batzuek preso zegoen faxista mordoa hil zituzten, baina besteek zenbait libratu ere bai, hauek elkar harturik monarkiko eta errepublikano batek baino gehiagok Bidasoa ibaia untzian iragan zuelarik bestaldera.

Guk eratuak geneuzkan talde batzuk eta bai Gaintzurizketako kaxkoan, bai Jaizkibelgo punttan, Tiñelu aldean ahaleginak egin genituen egun batzuetan esku bonbekin eta guzti, tiroak ahalik eta gutxienak boteaz, eta genituen munizio eskaxak ondoen aprobeixatuaz. Ikusia zegoen, halere, ez baziren errefuertzuak iristen halako egoerak ez zezakeela luzaro iraun. Hamar egun ibili ginen astoekin eta behar genituen jan—edariekin goiti ta beheiti, egun haietan egiten zuen bero zakar sargoritsupean izerditan blai...

Bapatean azaldu ziren Darieta aldean erreketeteak. Haiek egindako kalteak oraindik herriak gogoan dauzka!

Papelera atzean bazegoen baserri txiki bat Etxetxo izenekoa, eta tiroak estazio aldean hasiak zirenez batetik eta bestetik, arriskua haundia zen. Goiz

Patri Urkizu

hartan Darietako nagusia joana zen aziendarako inurkinen bila. Handikan zebiltzan erreketek batzuek ikusi zituzten ama eta hiru seme baserritik atera eta beste batera ihesi zihoazela. Joxe, anaia zaharrena, hamazazpi urte zituenarekin, Miren Olamartakoaren baserrira zihoazen, hemengoa baitzuen andregai. Eta kanpora orduko ama eta bi semeak hantxe hil zituzten gurdi bidean, estrata ertzean zerraldo gorputz hilak utzirik. Goardia asaltoko erreketek izan ziren hiltzaileak, eta hiltzearekin aski izan ez zutelarik puinalaz gerritik pasatu zituzten bi semeak. Garai hartan beste asko bezalaxe gerrikoan marfilezko euskal ikurrina omen zeramaten.

Felix zakar biltzaileak ekarri zituen karroan. Hura odol putzua eta sarraskia! Izugarria zen, ia ezin begiratu. Kanposantura berehala eraman zituzten eta han Olatzarreko Joxek lagundu zion lur ematen.

Goizero, Nafarroako aldetik zetozen hegazkinak gure lurretatikan pasatzen ziren pertsona eta abere guztiak izutuz. Gogora datorkit nola lehen bonbak goizeko bederatziak inguruan bota zituzten. Bigarrenak, abuztuaren hogeita seian bota zituztenak kaletik bere zaldiarekin eta karroarekin zihoan Felix Iglesias gixajoa, andre bat eta bi neska txiki, bata hamabi urtekoa eta bestea seikoa metrailaren bidean hartu, jo eta xoil zaurituta eritetxera eraman behar izan zituzten. Haietako bat berehalaxe egin zizkieten hileta elizkizunak.

Eguna argitu orduko hantxe zetozen bere zurrunbilo eta motorren orruz belarriak gortu arte, izua hezur—muinetaraino sartzen zigutelarik. Baina nola bonbardea zezaketen Jainkoaren eta Erlijioaren izenean Gurutze Santuaren herria? Konpreni ezina.

Noski, herria, jende xehea mindu, sutu eta haserretu egin zen bonba eta heriotze haiekin, agintariek manatutakoa betetzen hasi zelarik. *Orden público* delakoaren izenean batzuk detenitu zituzten eta kartzelan sartu.

Eta iritsi zen Santakruz bezpera. Ezin genion egoera hari gehiago eutsi Jaizkibelgo kaxkoan. Iñaxio Pikabeak deitu zion Joxe alpargateroari, hau orduan San Bartolomeko koartelean baitzegoen gudari talde baten buru, gorriak

1936KO SANTAKRUTZAK

Gurutze Santuko Elizari su emateko prest zeudela eta lehenbailehen etortzeko. Hantxe azaldu zitzaigun laister asko autobus batean herriko plazan. Tito eta Frente Popularreko beste batzuk Udaletzeko balkoian zeuden eta esan zioten:

— Zertara etorri zarete zuek?

— Zuek ixo, goragoko ordenak ditut eta...

Banatu ziren, bada, launa gizon Txerrimuñon, Andreonen, Goiko eta Beheko Plazan. Hurrengo goizean sartu zirenean erreketek herrian zain zuten Euskera Maite baporera igo eta hantxe joan ziren Getari aldera.

Baina igande benetan triste eta tamalgarri hartaz mintza nadin.

Badakizu nola garai hartan meza oso goiz izaten zen. Guretzat ez, noski, ohituta baikeunden. Meza ondoren mendigoizaleak mendira eta arrantzaleak arrantzara joaten ginenez. Seiretarako beheko eliza bete—betea zegoen eta beti bezala atzeko partean gizonak zutik. Don Luisek izugarrizko sermoia bota zuen. Urteroko ixtorio bera erabili zuen gaitzat Don Luisek, alegia, nola Konstantinori agertu zitzaion ospatzen egun hartan bertan zeruan gurutze haundi bat eta nola zerutik jaisten zen ahots ozen batek esan zion, cum hoc signo vinces, seinale honekin irabaziko duzu eta jendea berotu zuen esanez erreketean bila joan behar zutela kristau onak ziren lezoar guztiek harrera ona ematera, hauek baitzekarkiketen Jaungoikoak adierazitako seinale zerutiarra.

Hantxe joan ziren bera buru, kasuilarik dotoreenarekin, Gure Bordako Klaudio zaldi eder baten gainean, herriko agintari batzuek estandarteak eta Gurutzea zeramatela aurretik, eta mutiko gazte mordoa atzetik.

Christus vincit kantari, eta ¡Viva los requetés de Navarra!, ¡Viva Cristo Rey! oihuka Gaintzurizketako kaxkoraino. Hemen erreketean kapitainarekin ituna, paktua egin zuten. Frentepopularrekorik herrian ez zela gelditzen aseguratzeke mutiko taldea han eduki zuten bahituta preso Arriaundiko baserri inguruan. Gero tirorik bota gabe jaitsi ziren. Lehendik nahiko hilik ez balitz bezala batzuei baketsuegia iruditu zitzairen inbasio hura. Zertxobait aurrea hartua zien Don Luisek, eta ikusi zuenean gu oraindik hantxe geundela

Patri Urkizu

Bikarioenea eta elizak zaintzen, ze mehatxua botea zeukaten anarkistek su emango ziotela goiko elizari, behekoari eta bikarioaren etxeari, eta gainera kaia ondoko arto baratza barruan gordeak zituzten jada metxak, dinamita kartutxoak, eta dena hankaz gora botatzeko behar zituztenak. Beraz, ez zebiltzan txantxetan. Nioen bezala, han ikusi gintuenean Don Luisek eliza eta bere etxea zaintzen, haserre biziz esan zigun:

— Zoazte, zoazte hemendik.

II

IHESI

BAZIRUDIEN nonbait orduan ja ez zuela gure beharrikan. Zer egin egoera hartan? Ezin nintzen gelditu herrian, etxean besoak gurutzaturik, zer gerta zitekeenaren zain, gehiegi nabarmendu bainintzen azken bolada hartan eta herriko agintari batek batea baitzeukan nere kontrako mehatxua. Hamaika kezka eta zalantza ondoren pentsatu nuen ez zitzaidala alde egitea besterik gelditzen. Horregatik, alde aurretik emaztea lau haur ttikiekin hartu eta era mana k nituen Ulia azpiko Gasparrenera Maiñaxi, koinata, hantxe bizi baitzen.

Ni bezala jende ugari azken egun haietan ahal zuena hartu eta herritik ihes egiten hasia zen. Inork ez zekien noruntz eta noiz arte, baina gerrako frentetik urrun, ihesi, behinik—behin, ez jakin arren zenbat denbora igaro beharrean aurkituko ginen kanpoan, ez eta noiz itzuliko berriz Paskualenera. Hantxe laga nuen, Berak gelditzeko eta gelditzeko, eta nik nola nahi zuen gelditzea harrapatzen baninduten fusilatuko nindutela seguru nekielarik, eta lehenbiziko etsaia bere aita neukala. Bihotza hautsirik, eztarrian izugarritzko korapiloa eginda agurtu genuen elkar, baina oraingoarr ez genekielarik noiz arte.

— Adio, Patti.

— Adio, Luisa.

— Goazemak, motell.

Patri Urkizu

Esan zidaten itxoiten nituen guda lagunek eta hantxe abiatu ginen Martin, Anastasia eta talde niki bat Andreonetik San Juan aldera. Meipira iritsi ginenean ez genekien nondik jo.

— Bota dezagun txanpona León—Castillo. Lean gelditzen bada Donibanetik jarraituko dugu, eta Castillo bada San Pedrora pasatuko gaituk.

—Ongi.

Han bertan topatu genuen batel batean arraunean San Pedro aldera jo genuen.

Hemen ere ez zen nolana hikoia giroa. Dena zen sesioa eta eztabaida. Trintxerpeko zenetistak izuturik zeukaten herri guztia, ibiliak baitziren mehatxuka, elizari su eman behar ziotela, hau eta beste. Eta ez ziren ari txantxetan inongo kupidarik gabe uda hasieran Felipe Goena apaiza akabatu baitzuten.

Azken orduan motor txiki bat lortu nuen ihes egiteka, baina goizeko hirurak ziren eta motorra martxan jartzeko ahalegin guztiak egin ondoren, alferrik. Ez zen martxan jartzen. Pieza bat kendua zioten. Gero jakin genuen hamabitik hamahirurako gau horretan askori gertatu zitzaiola holako zerbait. Jendeak ihesi egin nahi eta ahal zuen motorra edo beribila harrapatzen zuela. Baina jabeek delkoak, piezaren bat, gurpilak izorratzen zituztela eraman ez zituzaten. Hark behinik behin ez zuen konponketarik eta arrantzale ezagunen artean bost arraun eta bi ontzi aurkitu nituen. Egun sentirako nahitaez alde eginak behar genuen bi bateletan banatuak.

Ekin genion bada arraunketari Lezoko Gurutze Santuari lehenik errezo batzuk luzatuz. Aita Gurea, hiru Agur Maria, Salbea eta Kredoa. Eta ondoren estribuen doinuaren konpasean abestu genituen apal eta erdi dardaraz hainbestetan kantatutako Orixeren bertsoak, Nemesio Otañok hitzei ipinitako musikarekin.

1936KO SANTAKRUTZAK

*Lezon dankagu, Euskaldun onak
gure sendagi bakarra,
Kristo, gure jaun Gurutzetua
Jaungoikoaren indarra.*

*Gaitzak makurturik zaurzkana,
naigabe eta neke zerana
atoz biotz argiz, nigana,
arinduko dizut min—lana.*

Eskerrak goiz hartan itsasoa bare bare zegoela. Barratik irten eta kanpora orduko, ordea, ipar haizea astintzen hasi zitzaigun eta baga franko hartu beharrean geunden. Noizpehinka olatua batelikoan barrena sartzen zitzaigun eta orduan arraunketari utzi gabe txukatze lanak erantsi beharrean geunden. Uliaren saihetsetik gindoazen mantso—mantso, baratxe, uhinen balantzan kulunkaturik, izerditan blai, irteerako larrialdia oraíndik irentsi ezinean. Hantxe ikusi genituen Zurriolako partean beribilen argiak mugitzen bata bestearen atzetik gau ilunean. Ez genekien zer gertatzen ari zen Donostian baina mugimendu gaitza bazebilela ikusten zen. Igeldoko alturatik ikusi genuen Kontxa barreanean Sotaren barkua jendea biltzen. Gure estropadak jada marka guztiak hautsiak zituen.

Geroago irakurri nuen nola Diputazioko balkoitik une horretan kendu zuten Espainiako bandera eta ikurrina bakarrik jarri, eta ha laxe iraun zuela tente eguerdiko hamabiak eta laurden bitartean,

Alegia, Ureta kapitaina bere erreketek eta moroekin sartu zen arte. Nola milizianoak tiro batzuk bota ondoren Orio aldera abiatu ziren, eta San Bartolomeko Gudalostea Alderdi Ederretik desfila tu ondoren bi cdo hiru arrantzuntzitarra igo eta aldendu ziren Bilbo alderantz. Gau hartan mandoen artean izugarritzko eztabaida eta haserreak sortu omen ziren, ez baitziren ados jartzen egin behar zenaren gainean. Geure buruen jabe, bakar bakarrik utzi

Patri Urkizu

gintuzten une larri haietan eta norik bere bidea hartu zuen, bakoitzak bere aingeru zaindariak agintzen ziona eginez edo saiatuz, gutxienez.

Geroago aipatu «los cuarenta de Artajona— esaldia 32. gezur hutsa zen, zeren atzetik beste sei mila gutxienez bazituzten eta politika gora beherak zirela ere tartean zerbait konpreni dezaket gertatutakoa.

lrungo eta Donostiako erorketek oso susmo txarra ematen ziguten. Zerbaitek huts egiten zuenaren seinalea. Jakin izan genuen Hendaian bertan zegoela Léon Blumek, Frantziako presidenteak, bidalitako armaz betetako tren baina alferrik iritsi zela. Madrident zegoen frantses enbaxadorearen portaera konpreni ezina gertatzen zitzaigun. Pacto de no interoención delakoa, bai, zakurraren putza. Denek egin izan balute ... baina garbi zegoen hipokresia hutsa zela hura, inork ez zuela sinesten hartan. Antza, pentsaerez radikala eta sozialista izaki, baina bere kideak esku hutsik utzirik, aldarrikatzen zituen helburuen kontrakoa baizik ez zuen burutzen. Bai lrun bai Donostiako erorketak, erosketak ere izan zirela zioenik ere bazen. Dena den bat sutan hondatu zen eta bestea erdi husturik gelditu.

Hamabitik harnahirurako gaua, kontatu dizudan bezala, beldurgarria izateaz gain, bene—benetan nahasia izan zen. Kamioiak, beribilak eta trenak, hala nola beste ibilgailu guztiak gainezka zihoazen, oinezkoak ere ugari zirelarik bide bazterretan, eta gu bi bateletan mendebaldera arraunean jo eta jo.

Orio gainera iritsi ginenerako aspalditxo mantsotua geneukala arraunketa hantxe arrantzuntzi bat ikusi genuen gure albora zetorkigula zerbaiten berri jakin nahian edo, eta galdetu genien:

— Nondik zatozte? Nongoak zarete?

— Mundakarrak. Eta zuek? Pasaiatik zatozie?

— Bai. .

— Pysbera goiaz makailua erosi gura.

— Bada, larri, ze txapel gorriak topauko dituzue bidean, denen jabe egin dira dagoeneko eta hobe duzue Mundakara itzuli bakailurik gabe.

1936KO SANTAKRUTZAK

Neke—neke eginak, erabat lehertuta, izerdi patzetan gindoazela ikusirik, eta ez zen gutxiagorako halako ihes estropadaren ondoren, txikota bota ziguten eta ontzi biak elkarri lotu genituen.

— Jatekorik badozue?

— Ez. Goizean goiz irten gara presaka, ezer jateko astirik ere hartu ez dugula.

Ogi beltza eta zahatoa luzatu ziguten eta honek zertxobait eztarriaren zakarra arindu eta sabeleko kantik isilarazi zizkigun. Berriro galdetu ziguten:

— Zelan zabiltze armakaz?

— Gaizki.

Berriketari heldu genion eta bat gentozen komentatzerakoan ez zegoela deusere, ezebez, bapez, zer eginik batere iskilurik gabe, armarik eta hegazkinik, edota gerrauntzi haundi eta ongi horniturik gabe. Premiak gero eta larriagoak, beharrak haundiagotzen hasiak zirela eta jada janariei buruzko neurriak hartzen hasi beharra zegoela. Eta udazken sarreran holaxe bazen, zer ez zen izango negu gorrian?

Iraganak genituen jadanik Getariako sagua, Izustarria, Iruarriandietako muturra, Zumaiako San Telmoa eta Debako Aiztanda, beraz, Mutrikuko parera iritsi ginenean han bertan uzteko eskatu genien bizkaitar jator haiei.

Txikota erriatu genuen eta berriz arraunei helduz 34. ekin genion lehorrerantz, eskerrak emanez:

— Adio, eta eskerrik asko.

— Agur, eta Gora Euskadi Askatuta!

— Gora!

Mutrikuko kaiaren barrenean sartu ginenean jendea erruz zegoen begira moile izkinetan, zetozenen zain.

Ezaguna nuen Antonio Kaxka egin zitzaigun bi ontzien eta arraunen jabe, eta gu, eskuak libratu genituenean, ez ginen batere haserre. Hasi

Patri Urkizu

zitzaizkigun berriro nekea eta gosea gailentzen, eta erabaki genuen lehenbiziko gauza, behar—beharrezkoena eta premiazkoena otardu on bat egitea zela.

— Goseak ni'ok.

— Baita ni're.

— Goazemak zerbait jatera.

— Bai eta lehenbailehen, bestela goseak akabatuko nauk eta.

— Baina, nora?

— Aurkitzen dugun lehenbiziko tabernara.

Horiexek ziren geure lagun taldearen ahotik irteten ziren hitzak. Aurkituko ote genuen lehenbailehen ostaturen bat baldimetan. Eta, no la ez, topatu genuen ere tabernatxo bat aski merkea. Bazkaldu ondaren Kofradian biltzeko ordena eman ziguten, zertarako ez genekielarik. Ez zen nahi orduko gaua iritsi, arraioa! Loak asetzeko kaia ondoko Bar Egaña ostatuaren goiko bizitzan utzi ziguten gelatxo bar. Leher eginda negoen, baina, halere gau osoan, nekea beragatik edo kezkengatik, ezin loak hartu. Jira batera, jira bestera, ezin postura egokirik hartu eta goiz alba inguruan azkenean loak menderatu ninduenean hamaika amets gaiztok astindu ninduten, ahots goraz karraxiak eta izen ulertu ezin batzuk esaten omen nituela, adierazi zidaten gela lagunek.

Hurrengo goizean goardiak egiten ipini gintuzten moile izkinean. Jose Astigarraga genuen gure buruzagia, itsasoko arazoetaz arduratzen zena. Hau, ordea, laister inguratu zitzaidan neretzat beste egin behar bat zeukala eta, esanez.

III

ERROMARDIKO HONDARTZA

JUAN MANUELEN itsasuntzirako bost gizon izendatu gintuzten eta lehenagotik aukeratuta zegoen patraiarekin Donibane Lohitzune aldera gauez abiatu behar izan genuen.

Ni lehengo bidaiaz aski nekatua eta aspertua nengoen, baina aginduak agindu, betebeharrezkoak ziren egoera latzetan norberaren nahiak eta erasotasunak ahaztuta.

Ilunabarreko bederatziak inguruan ha si zen jendea inguratzen ontzietara. Santu eta seña eman behar zidaten, eta ondoren uzten nituen ontzira igotzen.

Beldur nintzen, halere, atzerako bidai honekin. Ez dira, ez, sartuko ... ez dira, ez, pasatuko, no pasarán ... eta horrelako oihu ugari botatzen zituzten batzuek, baina etsaien atzaparretan erar gintezkeela pentsatze hutsak buruko ileak zutitu eta gogoetak goibeltzen zizkidan, barne pakerik inolaz ere ezin lortuz.

Itsasoan barrena egin genuen lehenbizi eta ezkerretara Matxixako argia ikusi genuen urrun. Bazihoan aurrera baporea, geldi—geldi, ikatza erreaz eta popalde—. "0.: tik ke arrastoa utziz. Argiren bat edo beste gau ilunean zintzilik ikusi orduko izuak harrapatzen gintuen eta hamaika ikaraldi pasa eta azkenean Igeldoko, Hondarribiko eta Sokoakoak igaro ondoren iritsi ginen Donibane Lohitzuneko kaiara goiz albarekin, eta beste bapore batzuen konpainian.

Patri Urkizu

Jende nagusi guzti hura itsasuntzitik al de egin zuenean, nor bere bidetik jo zuen eta hantxe gelditu nintzen ni moile bazterrean, bakar—bakarrik, inor ezagutzen ez nuela, poltsikoan pe zeta bi besterik ez, eta prozesio etengabea barren—barrendik.

Zertarako balio zidan han, gerrarik ez zen lekuan, poltsikoan neraman pistolak, ni pake—gizona izaki eta? Hartu nuen, bai, eta uretara bota nuen, bapatean hondoratu zelarik. Askatasun sentimendu bat nabaritu nuen orduantxe, baina baita ere izu zirrara beldurgarriak astindu ninduen burutik oinetara.

Nora jo ez nekiela hantxe gelditu nintzen gogoeta gero eta ilunagoekin atrakatu berri nuen itsasuntziaren inguruan. Azkenean erabaki nuen Hendaiako ArbolAxpí izeneko etxallean bizi zen fabrika nagusiarengana laguntza eta lan eske joatea.

Kostalde honetako parajeak ezin ederragoak dituzu.

Soro, baserri, gaztelu, hondartza, uharte, orotarik, baina ez zeuden nere begiak une haietan hango edertasunean erreparatzeko. Larritasunak gero eta bortizkiago kozkatzen ninduela neka—neka egina iritsi nintzen nagusiaren villa dotorera. Atea jo ondoren, neskameak nar nintzen galdetu zidan eta zer nahi nuen. Pixkat itxoiteko eta barnekaldera joan zen. Handik laister atarira pasatzeko esan zidan.

Agertu zen, bada, nagusia eta ohizko agurren ondoren kontatu nizkion nere pasadizoak, herritik irtenez geroztikan eta galdetu zidan:

— Eta zer asma daukak orain?

— Gauzak dauden bezala ezin naiz etxera itzuli. Horregatik eskertuko nioke nere familiaren albisteren bat lortuko balu jakinaren gainean jartzea.

— Lasai egon hadi alde horretatik. Egunero pasatzen diat frontera, eta langileren bati galdetuko zioat eta aztarnak aterako ditiagu. Denaren berri emanen diat hemendik agertzen bahaiz.

1936KO SANTAKRUTZAK

— Eskerrik asko.

— Hik orain hemen bizitzeko sosik ba al daukak?

— Ezta txintik ere.

—To.

Ehun liberako papera luzatu zidan eskura poltsikotik xorta bat atera eta. Hura nere poza! Denbora pixka baterako gutxienez, luzarorako balioko ez bazuten ere, kezkek, larrialdiak, lotsak eta estuasunak joango zitzaizkidan.

— Eskerrik asko, berriz. Ba ate luke neretzat lanik berorren fabrikaren batean, hemen Frantzian?

— Ez. Errefuxiatu politikoa haizenez, ez duk eskubiderik, ezta merezi ere.

Agurtu nuen, bada, berriro eskertuz. Beldurra hezurretaraino sartuta neukan. Ibili nintzen bai, batera eta bestera ezagunik topatzen ote nuen, baina alferrik. Geltokian jendea gainezka, batera eta bestera, poltsez eta maletsez zamaturik. Borde1erantz, Paberantz, Marseilla eta Kataluina alderantz zihoazen. Nik, ordea, etxetik hurbil ge1ditu nahi nuen, eta hurrengo bi gauak oilotegi batean igaro nituen.

Hala bada hirugarren egunean argi urratzearekin Baiona aldera abiatzea erabaki nuen, eta bertara iritsi nintzen ilunabarrean.

Hemen ere ezagunen baten bila hasi beharra neukan, baina nondik hasi? Huraxe bai zela lan zaila eta gaitza. Hasten nintzen euskaraz galdezka:

— Mesedez ...

Erantzunik batere ez. Saiatzen nintzen ere espainolez:

— Por favor, ¿Podría ... ?

Eta frantsesez jakin ez. Hura zen komedia tristea! Zazpi libera bakarrik gelditzen zitzaizkidan poltsikoan. Arratsaldeko zortziak ziren. Gosea eta logalea nituen une hartako adiskide bakarrak. Parte zaharreko taberna batean sartu nintzen eta txanponak erakutsiz galdetu nion tabernariari ea afaltzeko zerbait emango ote zidan ordainean. Ongi begiratu ninduen, alajaina, oinetatikan hasi eta txape1 puntarainoko errepassoa eman ondoren erantzun zidan:

Patri Urkizu

—Non.

Non galdetu eta nora jo ez nekiera urrundu nintzen handik eta zubia pasara kai alderantz abiatu. Guda—ontzi bateko marinel euskaldun bat izan nuen slaguntzaile momentu txar hartan, ostatu merke baten zuzenbidea eman baitzidan. Rue d'Espagne—ra bidali ninduen, katedralaren ingurura, eta hantxe, etxe txiki batean zegoen kokatua Hotel des Basques deitzen zena. Etxekandreak ur beroa lababoan eta atzekoaldera ematen zuen leihoa zeukan gela txukun baten giltza eman zidan.

Ez nintzen, ez, haserre aukera hura azkenean lortu nuenean. Alkandora, galtzontzilo eta barregolastikoak beztuak nituen eta harraskan zegoen jaboiez zertxobait garbitu nituen. Ongi bihurtu ondoren zintzilikatu eta zabaldu egin nituen leiho bazterrean zegoen soka batetik. Hego haizea zebilen eta zarpa zahar haiek lehertzeko giro ezin hobea. Zinatu eta negarrari ezin eutsiz etzan nintzen ohe estu batean. Hura etarkizuna ... ! Gau oso a pasa nuen errezoka, Jainkoari eskatuz nitaz eta nere familiaz urrikal zedin, kupida pixkat eduki zezan. Eskuak bular gainean ipini nituen bihotzeko taupadak hain sentitzen nituen bortitz, lehertu zorian ...

Goiz partean loak eta nekeak garaitu ninduten eta amets goxo baten gisara sartu ziren leihoaren zirrikituetatikan eguzkiaren lehen printzak. Hamarrak joak ziren eta arropak lehortuak neuzkan. Jantzi eta begiratu nion neure aurpegiari ispiluan. Hura itxural! Ez zen harrigarria kalean bizkarra ematen bazidaten jendeek. Ile—bizarrak luze—luzeak, alegia, inoren aurrean aurkezteko modu desitxurosoan. Jaitsi nintzen, bada, ostatura eta etxekandreaki kafesnea eskatu nion. Zurrutada luze eta benetan gustora emandakoez bukatu nuen katilua.

—Zenbat zor dizut?

—Bortz libera.

Gelditzen zitzaizkidan zazpi haietxek oraindik poltsikoan neuzkan.

—Tori.

1936KO SANTAKRUTZAK

- Esker anitz.
- Adio eta beste bat arte.

Bi sos besterik ez sakelean, baina zena zela, atsedean hartuta nengoen, eta zertxobait txukunago. Baina nora jo nezakeen, halere, zima, bizar eta planta zabar haiekin? Kalez—kale abiatu nintzen berriro. Ez nuen etsi nahi. Adiskideren bat topatzeko esperantza gelditzen zítzaidan bakarrik. Eta ha in zen haundia gogo hori ze hara non gainera zubi berritik igarotzerakoan ikusi nuen Joanes Susperregi ezagunaren antzeko gizona.

Presaka eta korrika inguratu nintzaion.

Beraxe zen. Elkar laztandu ondoren bere etxera eramán ninduen. Alaba eta emaztearen aurrean neuzkan itxurez zeharo lotsatuta nengoela adierazi nien, nere azken joan—etorrien eta gertakizunen berri laburra eman ez. Joanesen emazte Mariék bazkaria antolatu artean bizarra mozteko erramintak utzi zizkidan esanez:

- Gordeitzak heurtzat, beharko dituk eta.

Bizar apaintzaile tresnarekin, galtzerdi eta alkandora berriarekin, bazkari pobre baina goxo harekin, eta borondate hoberenez eman zizkidaten bost liberekin beste norbait nintzen familia euskaldun, jator eta on hari esker. Bihotz—bihotzetik azaldu nien, bai, nere eskerrik beroena eta ondoren abiatu nintzen berriro.

Oraingoan trena hartuz Donibane alderuntz.

Ostiraletan ízaten ohi zen feria eguna eta iritsi nintzenerako Donibane Lohitzunera ilunabarra. Dena biltzen eta ixten ari ziren unea. Beren astoekin etorritako baseritarrak, landareak, haziak, loreak, arraultzak, oiloak, kapoiak, oilarrak, txitak, lapinak, antxumeak, era guztietako barazkiak, patatak, gaznak eta beste hamaika gauza saltzera. Eguneko azken kontuak egiten ari ziren eta elkarri agurtzen. Oraindik ere jende ugari zebilen merkatu ondoko tabernetan. Batengana jo, besterengana hurbildu, azkenean hantxe topatu nuen Agosti Chahoren ka le ixkinean joxe Zumai. Hura poza eta lasaitasuna nerea!

Patri Urkizu

Esku hutsik eta inora ezean nengoela ikusirik bere etxera eraman ninduen. Ni bezalaxe arotza zen, xarpantera, eta nere poza ez zen txikia izan aditu nionean neretzat moduko lan egokirik bazeukala, tailan ere banekiela adierazi eta gero.

Bizitza honetako pozak eta kontentuek laburrak izaten diren gisara nerea ere halaxe gertatu zen, afalondoan lotara berriro oilotegira joan beharrean aurkitu bainintzen.

Zakurrekin etzaten dena, arkakusoekin altxatzen dela, esa era zaharrak dio eta, ni ere halaberetsu esnatu nintzen, oilo zorritz josia. Jan ez nindutenean goseti amorratu haiek kozkaka. Hura hazkurea eta hura piura!

Zumai adiskide on honen hiru lehengusu gazte iritsi zirenean ate—joka bukatu ziren bapatean hango nere egitekoak eta gora—beherak. Esan zidan, ordea, Akotze aldeko baserri batean, Irauntenean, hain xuxen, morroi baten premian zeudela.

Ni hona eta hara lan bila nenbilenez, eta baserri lanetan ohitura haundirik ez izan arren, heldu beharrean negoen nahitanahiez suertatzen zitzaidan lehenbiziko lanari, hobe baitzen zerbait izatea, deus ez izatea baino, eta hantxe joan nintzaie galdezka hurrengo eguna argitu bezain laister.

Erromardiko parajeen zegoen. Hondartza basati, harritsu hartatik hurbil, makal lirainez inguraturiko bide baten buruan. Han hemenka sagarrondo tartetik baserri txuriak ageri ziren tximinietatik kea zeriota, atarietan lore xorta apaingarriez hornituak. Hauetako baten ingurura iristen ari nintzela belar epaiten ari ziren bi gizon sasoitsu eta bereganatuz agurtu nituen:

— Jainkoak egunon daizuela!

— Baita hiri ere!

— Joxe Zumai adixkideak bidaltzen nau, neretzat moduko lanik baduzuen edo ... — Badakika segan?

— Zerbait..

1936KO SANTAKRUTZAK

Esan banuen esan nuen. Seg a luzatu zidan gizon gazteenak zaharrenaren aginduari erantzunez:

— Luzaiok hirea.

Nik sega hartzeko modutik, eta hasi orduko gerriak makurtzen antzeman, igerri zidaten lehen aldia nuela, ez nintzela batere trebea ofizio hartan.

— Uztak, uztak sega, zangoa ebaki baino lehen, nabari duk eta ofiziokoa haizela.

— Zertan nahi duzue, bada, laguntzea?

— Har'zak sardea eta belarra heda'zak.

— Nola?

— Begira, esan zidan gazteenak etsenplua emanez, belarra nik bezala barreia'zak.

Gosaltzeko garaia iritsi zenean eta platerean urdaia, lukainka, arraultze pare a erdian eta ogi beroa aldamenenean ikusi nituenean tripak pozez saltoka hasi zitzaizkidan. Izerdiaren ordaina zen hura. Aspaldian ez nuen halako hamaiketakorik egin eta nere onera etortzen ari nintzen. Geroxeago, izerdipatsetan blai, bazkari otordua iritsi zenean abiatu ginen baserrira eta sukaldeko mahaiaren inguruan konpondu nituen etxeke andrearekin nere egitekoak. Jan—edanaren truke gelditu nahi banuen egurra xehetu beharko nuen, eta etxeke bi haurrak zaindu.

Etxeko nagusiak Piarres zeukan izena eta mustax luze batzuez apaintzen zuen ezpain—gaina. Emaztea Ixabele eta bi semetxoak Manex eta Jan Battitte deitzen ziren. Aitona Beñatek, aitatxi deitzen ziotenak, eta amona Mayik ere, oso harrera ona egin zidaten nere egoeraz eta ixtorioaz jakin—minez agertu zirelarik. Nonbait apezak igandeko mezatan aholkatu zieten karitatez erbesteratuak hartu zitzaaten.

Irauntenea baserri arrunta, txiroa izan arren ez nituen faltan aurkituko han, ez lotarako ohe txuririk, ez otordu garaietan sabela zertaz ase. Beste baserri askok bezalaxe sotoan zeuzkan gelak eta ezkaratza. Azken honetan gaztain

Patri Urkizu

zurez eginiko mahai ederra, aulkiz inguratua. Honen aldamenean arintzen genituen ilunabarrero eguneko izerdi—nekeak.

Halere, ez al zen tamalgarria besteren haurrak kontzen, besteen soroak lantzen aritzea, neureengandik aparte, eta hauen kezka latzak bihotzean beti kozka egiten zidala egotea, nola ote ziren ez nekielarik?

Eguna joan eta eguna etorri beti lan bera. Goizetik egurra egin. Arratsaldetikazienda zaindu, eta astean bitan larrosak eta barazkiak merkatu egunetarako biltzen lagundu. Astelehen eta ostegunetan hain xuxen, aste arte eta ostiraletako azokarako.

Noizpehinka Piarresek hartzen zuen gurdia, idi pare ederrak tiraturik, eta hantxe laguntzen nuen hondartzaraino harri kaxkarrera eta hondarra gurdiratzen eta gero etxegintzan ari ziren aldamenetako zenbait bazterretara eramaten. Harriak tonberora biltzen genituenean ítsaso irekira be gira gelditzen nintzen. Bagak urrutian hasten ziren hausten hondar ertzeraino beren afar zuria behin eta berriro irauliz eta harri kozkor zakarrak zírenak legunduz.

Aldaparen bururaino iritsiak ginenean berriro ítzultzen nituen begiak eta hantxe ikusten Larruneko kaxkoa, Aiako Harriak, eta Jaizkibelgo puntan Higerreko burua eta Guadalupeko eliz dorrea. Behin baino gehiagotan penak gainezka, sentimenduak menderatu ezinean malkoak ezin izan nituen irentsi, eta hantxe korritu zuten nere aurpegi zikinetik izerdi tantoekin batera.

Udazkeneko gau luzeetan sutondoan biltzen ginen eta afaldutakoan oso gogoko nuen Beñat aitaxirekin berriketan jardutea, hau kontuzalea baitzen eta zirikatzea ere laket baitzizaion, berak erraiten zuen bezala.

— Irakurri berri dut Le Courier—en gorriekin bat egin zenutela, erlijionearen bandera utzi eta anarkistena hartzeko. Egia dea hori?

— Ez, inolaz ere ez. Ez da egia fisik ere hitz, horietan. Ongiasko ikusten duzunez igandero joaten gaituzu mezatara, eta jauna hartzen zintzo—zintzo. Eta faxistek euskaldunak gorrotatzen bagaituzte, Errepublikaren aldekoekin bat egin dugulako da. Nola ez batu hauteskunde legezko batzuetan hautatuak izan

1936KO SANTAKRUTZAK

baziren? Beraz, altxatu diren militarrek, eta erreketek —euskaldun gaixtoak benetan hauek— legearen aurka, eta euskaldunen askatasunen kontra, euskararen etsai amorratuak dituzu. Halaxe diote gainera, nahiago dutela Espainia gorria hautsia baino.

— *Antes España roja que rota*, —errepikatu zuen gaztelaniaz jota guztiak arrastaka.

— Horixe bera.

— Bada, ez dut entenditzen ahal nola daitekeen giristino zintzoak zaretela erraitea, eta apezpikuek diotenaren kontra egoitea.

— Begira, hori ez da osoki egia. Atzo irakurtzen nuen Le Sud—Ouest—en nola Arízitirnuño —Aitzol—, apaiz euskalduna eta jakintsu haundia Baionatik Bilbora zihoala Pysbeko Galerna izeneko baporean lau gerra itsasuntzik preso hartu zuten Jaizkibelgo alturan eta preso sartu Pasaiako portura. Hemendik Ondarretako kartzelara, eta gero beste apaiz askorekin batera Galarretako harrobian, Hernaniko partean fusilatu zuten.

— Hori hala bada bekatu haundia da gero, —Ihardetsi zidan Beñatek.

— Gizon haundia eta pizkorra, balientia zen Aitzol, alafede — erantsi nuen sutsu eta bero—. Oroitzen naiz nola behin mitin batean Errenteriako batzokian, frontoia zegoen lekuan, esplikatzen ari zen elizaren dotrina soziala eta langileen eskubideak, eta nola gorri batek publikoaren artetik oihuka bota zion: Zenbat ladrilu ezarri ditu bere bizitza guztian Aita Santuak?, — Estalinek adina, gutxi gora behera —.Lasaiasko eta berehala, asko pentsatu gabe, erantzun zion, Bestea isil—isilik gelditu zen, zeharo lotsatuta eta nora begiratu ere ez zekiela, erantzunak txalo pila sortarazi baitzituen.

— Mihi arin eta azkarra izanen zuen, naski, hain fite eta zorrotz ihardesteko.

— Halaxekoa zen, bai, gizon azkarra benetan. Eta beste bat, arrunt azkarra dena, ez dakit irakurri duzun egunkarian, Lezo Urreiztieta, itsas kontrabandista duzu.

Patri Urkizu

— Nola deitzen da bada Lezo, herritarra duzu ala?

— Ez, berez santurtziarra da, baina bere aita bergararra izaki eta hain debozio handia dio, naski, gure Gurutze Santuari honen omenez jarri ziola bere semeari Lezo izena. Azaña handiak egina da itsasaldean, faxistek ezarritako blokeoa hautsiz, armak eta janariak karreiatuz Bilbora. Baina hemen ezin sartu zuenez Santanderreko portura arribatu zen fusil, bonba eta kartutxo kargamentu handi batekin, eta guzti hau Errepublikaren esku utziz, baina parte bat euskal gudalosteentzat ere gordeaz.

— Kontrabandistak ezagutu ditut baina egungo egoeran izateko ausarta izan behar da gero.

— Bai, noski, azkarra eta ausarta.

— Aitatxi, zuk ere izanen dituzu, bada, aurreko 48. gerratearen pasadizoak kontatzeko, ezta?

Animatzen zian Piarres semeak, kafe berri bat inguratzen zialarik.

— Bai, bat baina haboro. Baina ez dautzuet kontatuko gerra ixtoriarik, ez baitut oraitu nahi ere Verdunen sufrituko genuen infernua.

IV

ERBESTEAN BARRENA

ARRATSALDE batez unai lanetan ari nintzela hara non aditzen dudan beribil baten motor hots, zarata ezaguna. GUITTET lantegiko nagusi frantsesa zen. Baserri atarian isilarazi ondoren hantxe etorri zitzaidan landara keinuka eskua altxatuz. Abiatu nintzen ni ere be rehala mal dan behera zistu bizian. Ez dakit nola ez nintzen erari zilipurdika han bertan, zangoak trabatuta edo zuloren batean sartuta. Elkarri agur egin ondaren gutun bat eskuratu zidan esanez, haurrak eta emaztea ongi zeudela eta aieka horretatik lasai egon nintekeela.

Ireki nuen bihotzak taupada bortitzak eragiten zizkidan bitartean, eta emazteak gauza bera esaten zidan bere eskuz idatzitako eskutitzan. Hain izan zen haundia orduko nere poza malkoz busti nuela arri osoa. Ez zen gutxiagarako. Bi hilabete luze pasatuak baitziren elka— • 51 rren notiziarik batere, ezer jakin gabe. Bertan bis ita iragartzen zidan Eguberri alderako.

Ongiasko nekien, jakin, Olatzarko gurasoak hala, nahi izanez gero ardura zitezkeela denengatik, ez zitzaiela faltako esnerik hurrei ezta jatekorik ere. Baina gauza bat zen ahal izatea eta nahi izatea, bestea. Gaspar, nere aitagarreba eta nere artean politika gorabehera ugari izan baitzen Tiñeluko kaxkotik Olatzar barrena eta kanposantuko bidean, bien artean ezin gaindituzko ataka baitzegoen. Oroitzen nintzen ora indik nola batera eta bestera erreketek bota

Patri Urkizu

nahirik genbiltzala eta behin elkar topo egin genuelarik Labadero ondoko Txulotxoan esan zidala:

- Hobe hukek emaztea eta haurrak kontzea, fusilak utzita, masoi alu hori!
- Eta hi, karlista aluita ...

Halaxe zen gainera, somatena eta hauen buru. Bidez—bide eta mendiz—mendi bere taldearekin ibiltzen zena neska—laguntzan joan izan ginenon etsai purrukatua. Eta azaroaren erdian «Circulo Tradicionalista» osatu zutenean Tiburtzio Askasibar buru zutela, tartean zegoen ere bokal gisa.

Abenduaren 22an, Eguberriak gainean genituela, Joseba Andoni Agirre, Euzkadiko lehen lehendakariaren irrati saioa entzun ahal izan genuen. Sud—Ouest—en iragarria zen gaueko hamarrak eta laurdenetarako. «Euzkotarrak, nere aberkide zintzoak. .. ». Piarresen familiak ez zuen deusik konprenitu gaztelaniazko parteaz, eta itzuli egin genien euskarara. Lasaitu ziren presidenteak hain irmo adierazi zuelarik krístautasunaren fedea, eta jainkoa eta Lege Zarrarekiko atxikimendua.

Biharamonean, Eguberri bezperan, emaztearen bisita izan nuen. Lau hilabete inguru ziren elkar ez genuela ikusi eta hitzik gabe, nola mintzatu ere ez nekiela gelditu nintzen. Bere aitarekin batera iritsi zen. Ohizko agurrak egin ondoren, aitaren kopet ilunak beti bezain goibe! jarraitu zuen, berarentzat gu kontrarioak baikin, masoiak. Hala bada, nagusiaren ikuilura joan zen hango idi pareta eta behi multzoari begirada botatzera, haietxek baitziren begi onez ikusten zituen bakarrak, hura bere egitekoa eta ofizioa. Ni, berriz, nere emaztearekin sukaldean seme—alaben, herriko berriak jakin nahian galde eta galde inoiz aspertu ezinik.

- Luixa, Luixa ...
- Ene ... Maintzineko Austin etorri zitzaidan kooperatibako paper guztiekin.
- Eta zer egin zenuten? Ongi gorde al dituzue?

1936KO SANTAKRUTZAK

— Bai, bai. Zaku batean sartu eta anaia Joxekin leku seguruan gorde ditugu.

—Non?

— Gaintzaldean. Badakizu baserritik gorantz nola sagarrondo eder bat dagoen, ez? Ba handikan gertu lezoin batetik beheruntz bertan den gereziendoaren oinetan egindako zuloan.

— Ongi. Orduan seguru daude orain.

— Dudarik gabe.

— Maiz joaten al zara baserrira?

—Ez.

— Zer bada?

— Begira, zer egin zioten lehengoan Marikrutxi. Potajea banatu zutenean bakoitzari haragi puxkat suertatu zitzaion. Bazterrean zegoen Karmen, eta hau nerea da esanda kendu egin zion, haurra ia negarrez utzirik.

— Penagarria!

— Eta beti ari zaizkit esaten, ez dakit zertarako etortzen zareten honera. Aurrekoan amonak hiru sagar eman zizkion, Martxelak bidean topatu eta kendu. Horregatik konturatuko zara zenbaterainoko amorrua diguten.

— ... Eta nor da orain alkate?

— Tiburtzio Askasibar.

— Halere ...

— Begira. Esaten dutenez, erreketek herriko plaza zara iritsi zirenean, kapitain batek egin omen zuen lehenbiziko galdera izan omen zen, ea non bizi zen Tiburtzio Askasibar, eta be rehala haren bila joateko agindua eman omen zuen.

— Beraz, Patti kendu egin dute. Eta kontzejalak?

— Boni Pagola, Luis Aranjuelo, Fermin Biurrarena eta Martxel Legorburu. Sekretario lanak Fernando Lobatok egiten ditu, eta egin duten lehendabiziko gauza plazari izena aldatzea izan da.

Patri Urkizu

- Eta zer izen eman diote, bada?
- Badirudi Konstituzioaren izena ez zitzaiela gustatzen eta orain Plaza del Santo Cristo dugu.
- Ez dago gaizki. Don Luis kontentu egongo da.
- Zuek alde egin eta hamabost egunera Jesusen Bihotzaren irudia ezarri zuten gurutzearekin batera udaletxeko sala nagusian, meza nagusian *Te Deum* kantatu eta ondoren prozesioa antolatuz elizatik herriko etxera.
- Zer dakizu Benantxioren gainean?
- Papeleran jarraitzen du lanean, baina uste dut Zirkuloko *Bolsa de Trabajo* delako komisioren batean presidente bezala hautatu dutela. Baina ez berak, ezta Joakinek ere ez dute ezer agintzen.
- Nolaz hori?
- Entzuidazu eta utzidazu kontatzen. Joan nintzen Joakinengana Txapa Fabrikara lan bila, eta badakizu zer erantzun zidan?
- Nola nahi duzu bada jakitea? Zer esan zizun?
- Berak ez zuela agintzen lan kontratu kontutan eta alkatearengana jotzeko. Honek agintzen zuena egingo zuela eta. Ioan nintzen, bada, honengana eta nere egoeraren berri eman nion. Bestetik, ez zeukan deus esan beharrik, ongiaski ezagutzen baitzuen gure larriunea. Paper bat luzatu zidan zinatzeko. Zinatu ondoren eta horixe Joakini erakutsi ondoren hasia naiz lanean.
- Eta Gasparrek zerbaitetan laguntzen al zaitu?
- Badakizu Martxela dela han agintzen duena, eta nik ez diodala deus ere eskatu nahi.
- Baina haurrak. ..
- Ahal duten moduan. Noski, Marikrutexek duen adinerako ahal duena egiten du. Besteak zaindu, enkarguak egin, etxea garbitu, bazkariak prestatu, ia dena ...
- Dotrinara bidaltzen al dituzu?

1936KO SANTAKRUTZAK

— Noski, baietz. Inoiz faltatu gabe, hantxe joaten dira, txintxo txintxo igandero bazkalondoan ordu bietarako. Baina baclakizu zer esan zuen joan den igandean Don Eusebiok denen aurrean?

— Zer?

— Galdera hau egin zuen. Ez dakizuela zein den Lezoko andrerik itsusiena? Eta inork ezer esaten ez zuenez, atrebitzen ez zelako, jarraitu zuen, Martxela Veintemillas.

— Ja, ja, ja. Zer, txispatua joan al zen, ala?

— Ez nau harritzen. Seguruena. Baina zu ezin al zaitezke bueltatu eta zure fruituez arduratu, hemen atzerrian besteren haurrak kontzen egon orde?

— Ez. Gerra dagoen bezala, nahitanahiez hemen gelditu beharra daukat. Ezin naiteke itzuli. Badakizu zer gertatu zitzaien Don Martin Lekuonari eta Don Gerbasio Albizu Errenteriako apaiz gazte eta zaharrari, ezta?

— Zerbait entzun dut.

— Bada, Galarretako harrobian akabatu, fusilatu zituzten. Lehenbizi Zumardiko Batzokira deitu omen zituzten. Hara gezurretan bildu, eta preso hartu. Gero Ondarretako kartzelara eraman eta handikan gauez fusilatzerara ...

— Triste da, bai, Martin eta Julianen amarentzat. Horrela bi seme galtzea!

— Eta zuk oraindik zure aitarekin batera pentsatuko duzu gerra honen errudunak gu garela gorriekin ibiltzeagatikan. Heriotzetik jendea eta apaizak libratzen saiatu baizik ez garenok. ..

— Utz ditzagun politika kontu horiek. Nahi al duzu hurrei zerbait esatea?

— Emaiezu musu eta besarkada haundi—haundi bat gauero nere partez eta esaiezu asko gogoratzen naizela, eta agudo berriz etxean izango naizela.

— Jainkoak hala nahi dezala.

— Hala bedi, bai. Adio!

Elkar besarkatu genuen eta etxera itzuli zen emaztea aita gidari zuela. Ni, aldiz, hantxe gelditu nintzen atarian lehen baino tristeago. Latza zen benetan egoera, baina zer egin nezakeen? Nola mantendu lau seme—alaba eta emaztea,

Patri Urkizu

nola aitzina atera familia inongo irabazpiderik gabe, lana debekatua neukalarik, ihes eginda, morroi bezala karitatez ia biziak? Nola etor zitezkeen emaztea eta haurrak nerekin bizitzera lanaren segurantzirik batere gabe? Nola arriskatu? Ziur nintzen, bestetik, zena zela, aitaren baserriko laguntzaz hobeto izango zirela. Hango patatarik eta esnerik ez baitzitzaien faltatuko. Osasunarekin zeudela jakiteak pozten ninduen, baina ez zen buruhauste txikia jakitea herrirako bidea hartzen banuen, itzultzera ausartzen banintzen bizia arriskuan ipintzen nuela.

Gerraren martxaz jakin nahian irakurtzen nuen noizpehinka Donibanen ostiraletan eros ten nuen Eskualduna aldizkaria, huraxe baitzen euskaraz gehiena zekarrena. Hango ziriak eta hango marrazkiak gustora irakurtzen nituen, hala nola herrietako berriak. Ez nengoen, ordea, batere konforme euskaldun abertzaleei buruz ematen zuten informazioarekin. Gogokoenak Zerbitzarik idazten zituen lanak ziren, eta jarraitzen nuen adibidez Lehen Gerla Haundiaz hainbat urteren buruan idazten ari zen kronika zehatz eta garratza, Berrogeita Hamargarrena Gerlan, deitzen zen eta 1937ko urtarrilaren lehen egunekoa, hau da, urteberrikoa honela bukatzen zen. Hain barne sartu zitzaidan irudi hura arkatza eta papera hartu eta kopia egin nuela:

Bi egunen buruan, Alemanak urrunduxe zirelarik, joan ginen gudu ikaragarri hura egin zuten gunerat. Bidea ez genuen aise tragan: hilez emokatua zen. Xoko batean bi frantses . eta bi aleman atxeman genituen beren baionetekin oraino elkarri josiak!

Bi frantses eta bi aleman beren baionetekin elkarri josiak! Berdin zitezkeen bi anai euskaldun, bakoitza frente ezberdinean suertatu eta. Gerra zoroa!

Bestetan merkatu plaza ondoko tabernetan Besamotxa deitzen genuena entzuten egoten nintzen. Eskurik gabea zen, antza denez harrobi batean

1936KO SANTAKRUTZAK

leherketa baten ondaren gabetua gelditu baitzen. Oinetakoentzat lokarriak eta bertso paperak saltzen zituen. Bai ahots ederra gizon harena! Hari entzun nizkion eta erosi ondoren buruz ikasi honela hasten diren bertso famatuak:

Markesaren alaba interesatua

marineruarekin enamoratua ...

Akotzetan lehengo sei hilabeteak sari gabeko morrontzan eman nituen eta ez guztiz haserre, hura lortu nuenean egun mardoxka baineramatzan ohe garbian sartu gabe.

Mila bederatzirehun eta hogeita hamazazpia hasi 58. berria. Ezin egona gero eta barrenagotzen, urduritasuna gero eta haundiagotzen ari zitzaidan, eta beraz, lanez aldatzea erabaki nuen, Ziburura joanez. Herri pollit honen Arintasuna ostatuan biltzen ginen zazpi lagun, errepublika ederrean. Elkarrekin leial, zintzo, lanean eta harmoniarik hoberenean konpontzen ahalegintzen ginen. Egunero bizitzeko zazpi libera behar eta hauek lortzeko goiz jaiki eta lanera.

Garaje txiki batean geneukan gordekako lantokia. Kamioneta zahar bat lanerako aulkia. Etxetik emazteak zenbait gubi, zerra, mailu, pinpalet, tenaza, arrabota, estoka, iltze, lima, eta arotz tresna bidalirik zizkidan eta laguneren artean aurkitu nituen beste erreminta batzuekin jotake aritzen ginen ahalik eta zarata ttikiena atereaz, eta erdi ilunpean. Izkutuko lanean. Jendarmeeek harrapatuko gintuzten beldurrez.

Bermeotik etorri berria genuen ere beste adiskide bat, Koxme izenekoa. Hau ni bezala arotz lanetan aditua zenez, bion artean antolatzen genuen ahal zen lan guztia, premia larrienak ozta—ozta gainditu asmotan.

Afalondoa iza ten zen guretzat eguneko atsedeen une bakarra. Hantxe Bixentak zerbitutakoaren dijestioa egiten genuen bitartean berriketan aritzen ginen, etengabe, mintzagai nagusiak gerra eta familia k zirelarik.

Patri Urkizu

— Zer berri duzu?

— Zaharrak berri.

— Noiz akabatuko duk gerra?

— Bukatu ez zekiat, baina akabatu, gaurdaino makina bat akabatu dittik.

— Eta uste al duk Bilbo hartuko dutela?

— Ez diat uste. Ez dituk pasatuko. Alferrik ari dituk alemanak, moroak eta italianoak ... *No pasarán*.

— Hala bedi. Itzaropena omen da galdu behar den azkeneko gauza eta, izparringiak dioenez, esperantzak vivre eta travailler eginarazten badik vaincre ere egirrgo ahal dik.

— Zerbaiten beharra izango da. Guk hemen gorriak ari bagaituk pasatzen, Bizkaiko mendietan oraindik gorriagoak ari omen dituk sufritzen.

— Gailego alu horrek ez al dik esan, bada, *conquistaré toda España, aunque tenga que destruir la otra mitad?* Kapaza duk zangomotz hori Espainia erdia fusilatzeke.

— Nik ez diot, zioen beste batek, batere tankera onik ematen gerraren martxari.

— Ea alaitu aurpegi horiek, esa ten zuen beti umoretsu zebilen Koxmek, laster etxean bueltan izango gara eta. Gainera, enteratu al zarie?

— Zertaz?

— Francok kantzerra omen dik.

— Ah, kantzer gixajoa, kantzerra berak akabatuko dik.

Juranzoneko amo xuriaz zertxobait kontsolatzen ginen eta ondoren kanta zenbait abesten. Donostiako iru damatxo. Agur Xuberoa. Boga, boga marinela. Eusko Gudariak gara. Azken abesti abertzale honen hirugarren estrofa bat kantatzen zuen beti irribarrea aurpegian zeukan Koxmek, honela zioena:

1936KO SANTAKRUTZAK

*Ez dira, ez, sartuko
faxistak Euskalerrian,
euskaldun gudari bat
zutik dagon artian.*

Mañuk bertsoaritzarako jariora bazeukan, eta be ti prest puntturen bat. Horrela bizkaitarraren gerra kantei Xenpelarren bertso baketiarrekin erantzuten zion ia beti, Iya guriak egin du ... kantatuz. Lagunarteko giro hartan denborak erraz ihes egiten baitzigun, Bixentak atentzioa deitu behar izaten zigun eta erretiratzeko garaia zela adierazi.

Gordeka ari baikinaren geuren lanean norbaitek salatu egin gintuen. Hala behin lanean ari ginela jendarmeei atera jo zuten, eta paperak eskatu zizkigutenean ez genuela erantzun genien. Beraiek errefuxiatuek ez geneukala eskubiderik lanean aritzeko, debekatua genuela eta frontera jarriko gintuztela hurrengo egunean.

Lapurdikoko familia euskaldun eta bihotz oneko zenbaitek gerratik ihesi iritsi ginenoiz esku zabalik hartu bagintuzten ez ziren denak ados honekin eta prentsa eskuindarra kontra genuen, eskale ugari ikusten omen baitzen karriketaren barrena, han hemenka. Hura, ordea, ez zen gure egoera, lanean zintzo ahaleginak ematen genituenena.

Ez nituzke berri nahi orduko larritasunak, baina ezin ahantzi ere. Eskerrak Donibaneko idazkaria zen Jelos jaunari, gizon jator, prestu eta euskaldun on bezala portatu zitzaigula. Eskatu zien honek jendarmeei gure kasua atzera zezaten egun batzuez, eta Pabeko prefekturatik lortu zigun luzamendua, beste hiru hilabetez "egon ahal izateko baimena. Ditzosozko paperak!

Beraz, paper berri haiekin larrialdia zertxobait baretu arren, ez zen hantxe bukatzen dena, astero azaldu behar baikenuen jendarmeriara.

Patri Urkizu

Irakurtzen genituen, esan dudan bezala irrika haundiz, egunkariak. Polliki—polliki, baratxe—baratxe, Piarresek erraiten zuen bezala, frantsesa pittin bat ikasten gindoazen eta gerraren berri paperen medioz jakiten. Holaxe jakin izan genuen nola otsailaren hasieran harrapatu zuten Hendaiako zubian faxista irundar bat bi bomba dinamita eta metxa poltsikoan zeramala. Errefuxiatuen kontra ekintzaren bat burutzeko asmotan omen.

Goseak ez geunden arren estu eta larri bizi ginen.

Beldurra hezurretaraino sartua geneukan, eta loak txoil nekatuta hartzen gintuen arren, amets izugarriez nahastua zen huraxe. Halakoa zen bada, iheslari pobreen bizimodua, zeren ikusten genituen ere, zubia pasata Donibanera joaten ginenean lanen bat burutzera, beste zenbait poltsikoak diruz ongi hornituak izaki, nonbait, futboleko lasaiasko hondartzan jolasten edota frontoian pilotan ia egunero ari zirela. Ez genuen, ez, horrelako ariketen beharrik guk izerdiak botatzeko. Eta beste batzuek Louis XIY.aren plaza inguruko kafetegietan, *Café Madrid*, *Café La Marine*, eta *Café de la Baleine* uste dut deitzen zirela, berriketan etengabe edari finak mahaietan, mundua konpontzen.

— Horiek egunkaria leitu eta komentatzearekin nahikoa ditek, —esaten zidan Koxmek.

Luzaro ezin iraun horrela eta Landetara abiatu ginen pinuak botatzera zazpikotea. He mozle—apaintzaile bat, bi arrantzale eta lau arotz. Mahairako hobe koadrila!

Ozta—ozta osatu genituen treneko txartela erosteko behar ziren liberak eta gau hartan gelditzen zitzaizkigun txanpon urriekin afaldu ondoren iratzte gainera joan ginen lotara.

Goizean goizik atera ginen bidera ikustera ea ba ote zen inor lanera eraman nahi gintuenik. Agertu zen gizon bat gutaz arduratu eta jabetzera. Galdetu zigun ea prest geunden urrutira joateko, eta nola ez genuen ezer askorik galtzeko berehala prestatu ginen bere esanetara.

1936KO SANTAKRUTZAK

Pinu eta lintzira artetik bide luze eta aspergarria egin ondoren, zeharo laua baitzen dena, Ichoux ízeneko herrixkara iritsi ginen.

Arratsean lo egiteko eta aterbetzat oholez eraikitako txabola zatar batzuk eman zizkiguten. Haiek gelak eta haiek etzalekuak! Bizpahiru ohol, modu txarrean josiak, horien gainean lasto—xorta batzuk biguingarri, eta hala—moduzko estalkia.

Negu gorria zen. Euri jasa eta ekaitzek oraindik hotzago, ilunago, zakarrago eta ezin latzagoa bilakatu ziguten Landetako egonaldia. Huraxe bai benetan giro grisa eta trixtea! Eskerrak han topatu nituela bi herritar: joxe eta Anaxtasio. Hola, gutxienez adiskide artean besterik zen. Kontu berriak jakin genituen eta gureak elkarri kontatu genizkion, horrela penak banaturik ttipitzen bide ziren, antza. Gau batez batzuek zurrunka eta besteok loak hartu ezinik geundenean ohe azpitik zerbait hotz eta bizi, lirdingatsu peatsi zitzaidan gerri atzean eta oharkabean karraxika hasi nintzen:

— Ai, ai, aiene!

— Zer duk?

Galdetu zidan Anaxtasiok inguratu zitzaidalarik.

— Zomorro batzuek kozk egin didatela.

Jaiki ginen eta kriseiluaren argi dardartia piztu genuenean hantxe ikusi nituen suge, muzker eta beste lintzira—pizti batzuk nor baino nor arinago txabolarerrohol tarte eta zirrikituatarik ihes eginez. Pizti haiek ere, noski, uretik eta sasi hezetik kanpo egon nahian txaboletarantz jotzen zuten, hemen aurkitzen zutela, leku gora eta altutxoan eraikiak zirenez gero, le horra eta berotasun apur bakarra.

— Zer izen dute zomorro horiek?

— Eltsuntsak uste dut deitzen direla.

— Ba guk abiak deitzen diegu, esan zuen beste batek.

— Euli makurrak dituk horiek. Garbi'zak hori lehenbailehen gorri—gorri utzi diate eta gerri partea.

Patri Urkizu

Ametsetan pinu sailak eta surangilak lagun genituela igaro genuen oihanean denboraldi bat. Hura bai zela jardun gogorra. Aizkora goiti eta aizkora beheiti dantzatu beharra! Saio haiek leher eginda eta goseak akabaturik bukatzen genituen. Ogi puxkat, baba, urdaia eta ardo pixar batekin konformatu behar.

Hemen ere astero azaldu behar genuen jendarme—, rian, eta inoiz hitz bat gorago ezin atera. Liberté, Fraternité eta Egalité, ah, zer hitz ederrak egiak balire! Maiz irakurtzen genituen egunkarietan hitz horiek, eta beti paperen buruan ageri ziren, baina egia esan, ez nien horiei esanahirik antzematen.

Igande batez Ichoux—en misioak zirela eta hantxe 64. abiatu ginen herrira koadrila. Bi apaiz euskaldun ziren etorriak predikatzera. Bazko Eguna prestatzen ~ri, nonbait. Meza kantatu eta sermoiak entzun ondoren ostatura hurbildu ginen. Bazkalondoan hantxe suertatu baitzen ere Basarri bertsolari ospetsua gure artean honako bertsoak bota zituen:

*Alabearrez sartu ginen bein
Landesko pinu artera,
eguneroko ogi zuria
irabaziaz jatera.
Ogei euskaldun bagera baina
au da guzcion galdera,
nere famili edo sendia
zer edo nola ote da.
Gorputzez emen bagaude ere
gu beti an bizji gara.*

Haren bertsoek zekarzkguten oroitzapen eta burutazioekin tristura areagotu zitzaigun. Dena den, pattar pixkat bota genion kafeari eta ondoren kantatu genituen abestiekin pixkat kontsolatuz alaitu ginen. Gerra gaineko

1936KO SANTAKRUTZAK

albisteak, ordea, mahai gainera atera zirenean herri—minak berriro kozkatu gintuen guztiok.

— Irakurri duk Durangoko bonbardeoarena?

— Bai, txiki—arraio egina utzi omen ditek.

— Etxeak, komentuak, elizak, denak eraso omen dizkitek eta hilak erruz omen.

— Bai, baina be ti bezala orain ere gezurretan zebiltzak. Gorrien gauzak direla, eta esanez.

— Nola sinistu litekek hori?

— Halaxe duk. Ez ditek Jainkoaren barkaziorik. • 65

— Hori egitea, bonbak jende zibilaren gainera botatzea ... ez ditek inoren errukirik.

— Eliza batean launa ematen ari zen apaiza, monagiloa eta herritar batzuk ere zerraldo gelditu ome~ dituk. Gehienak emakume zaharrak ohi den bezalaelizetan, eta hauetako batzuk seguru bonbak jaurtikitzen zutenen alde ari zirela errezatzen.

— Arrazoa duk. Gero gorriak eta nazionalistak gaituk errudunak eta gaixtoak.

— Usteko ditek nahi dutena esanda sinistaraziko diotela herriari, baina alferrik zebilztek.

— Eta Gernikakoa?

— Hori gogorragoa izan duk oraindik. Nola justifikatu dezakete ora in hamaika aldiz Gernikako Arbola kantatu duten karlista euskaldunek, zazpi euskal herrietako herri burua, herri sakratua eta zuhaitz bedeinkatua bonbardeatzea, beren odolari, mintzaiari eta historiari uko egin gabe?

— Gorrien eta abertzaleen ekintza izan dela, esango ditek berriro.

— Baina mundu guziak daki eta aleman hegazkinak izan direla. Heinkel 111 eta Junkers 52 delakoak arratsaldeko lauretan hasi eta zortziak arte iraun dutenak crasoka eta bonbardeoka etengabe herria.

Patri Urkizu

— Badakik zer entzun nion lehengo egunean atso bati?

— Zer?

— Bada honakoxea zioen juxtu—juxtu: —Nik ez dut errango Gernika frankotarrek ez zutela erre, ez; baina horiek erre dutelarik ontsa errea da, ta kito.

— Franco, Hitler eta Musolini, a zer traidore galantak! Eta martxa honetan Frantziara ere laister hedatuko ditek gerra alemanek.

— Gutxi fida.

— Orduan jakingo dute bai, ongiasko nor den nor eta zer den zer.

Nioenez iratze edo lasto pixar baten gainean lo, irabazi gutxi eta lana latz. Huraxe zen gure zoria, eta harekin kontent egon behar iristen zitzaizkigun berriak entzunda. Jantzi arruntak erosteko eta janez nola—hala asetzeko adina bageneukan arren lanaren eta hezetasun gaitz hura zela medio edo auskalo, eta besoan egin nuen ebakitze sakon baten ondarioz makaldu eta eritu egin nintzen. Oinaze eta zasztada ikaragarriak sufritzen nituen eta ezin geldi nintekeen han.

Beraz, berriro paraje heze, hotz eta gaizto haiek utzi eta Ziburu aldera itzuli be harrean aurkitu nintzen lanerako gai ez nintzenez.

Mugaldean berriz zertxobait osatu nintzenean lelos, donibandar idazkariari bis ita egin nion eta gure berri eman nionean harri eta zur gelditu zitzaidan. Luzaro begira jarri eta ea isilka lan egin nahi nuen galdetu zidan. Nik baietz, edozer lan egiteko prest nengoela. Deus ez edukitzea baino hobea izango zela behinikbehin, eta honela gordean jarri ginen bere etxepean arotz eta taila lanak egiten nerekin itzuli zen Anaxtasio eta biok.

Gutxi iraun zuen halere lan harek, bi hilabete bakarrik, hain zuzen, berriro jendarmeak agertu baitziren, norbaitek salatuta antza, *carte de séjour*, erresidentzia baimena ukatuz eta mugatik hirurehun kilometrorra bidaliz.

Enaden antzera nenbilen kabira ezin itzuliz, edota kaioen gisara batera eta bestera, jira—biraka ekaitz aroan, erasoaren erasoz, haize eta zurrumbilo guztiek noranahr eramanez, inon pausaleku eta atsedeen toki, kabi gozorik ezin atxemanik, buruan beti etxeakoak.

1936KO SANTAKRUTZAK

Berriro Jelos jauna atera zitzaigun bitartekari. Honek agindu zigun Monsieur Barbeaudy izeneko Bardeleko adiskideak lagunduko zigula. Utzi zuen ardena Ziburuko alkatearenean hurrengo goizean tren txartela hartu beharra genuela.

Pardela hartu eta hantxe ginen geltokian goizeko seiretarako. Landetako paraje izugarri eta lanbrotsu haiek igaro ondoren bederatziak eta laurdenetarako Bordeleko geraleku tzarreen geunden.

Hango jendearen ugaria. Hango oste eta moste. Hango gizadia, batera eta bestera zamaz beterik zebilena. Hango trenen joan—etarriak eta altabozako iragarki etengabeak. Hango tabernako buila eta jendetza.

Eskerrak gidari onarekin gindoazela. Elkar agurtu zuten idazkariak eta Barbeaudy jaunak, eta gure presentazioa ere ondaren egin zuen. Beribilean generamatzan balisa kaxkarrak eta gu laurok sartuz hirian barrena abiatu ginen. Benetan ederra zen hiria, baina barren kezka ez zigun utzi behar bezala preziatzen. Ostatu batera joan ginen zertxobait hartzera eta ondaren lantokiko bidea erakutsi ziguten.

Intxaur beltzez gela dotare bat egitea nahi zuen eta berarekin joan behar genuen zura aukeratzera. Rue Lecoq—en izeneko kale ilun batean geneukarr nagusiak ardaintzen zigun ostatua, katedrala eta hiriko etxe ederretatik ez ha in urrun, baina lan tokitik urrutixko.

Haiek komeriak lehenengo egunetan! Etxetik goiz irten arren ezin iritsi ardurako lantegira. Ordu erdiko bidea ostatutikan lantegiraino, baina askotan bi ordu igaro ondaren ezin garaiz heldu, kaletan zehar makina bat aldiz galtzen baikin.

Egia esan, gizona denera ohitzen omen den animalia dela, diote, baina ez ginen gu hiri haundietako bizitzarako jaiok. Bater a eta bestera, beti korrika zoroen moduan ibiltzea ez zen guretzat egin.

Ostatuan gure goseak eta egarriak erantzun aski egokia aurkitzen zuten, baina mahai inguruan denak ziren frantsesak, eta nola araindik aski ulergaitza

Patri Urkizu

egiten zitzaigun haien mintzaera, zerbait gehiago ikasi artean, amola hadi, harrela bizi beharko.

Noizpehinka, larunbat eta igande arratsaldetan, Eskual Etxera joaten ginen euskaldunen arteko giroa bilatu nahiz, eta han Parisen hiru hizkuntzatan argitaratzen zen *Euzko Deya* erosten genuen gerraren berri izatearren eta pena haundiz irakurtzen genuen ia osorik. Ikusten ari ginen nola Gipuzkoarekin gertatu zena urte bat beranduago Bizkaiarekin gertatuko zen. Donostiako zapalketak eta pasadizoak, hala nola kalean —horra hor italianoak edo hara han alemanak— faxistek entzutean esaten zietela han ez zela ez alemanik, ez italianorik, espainolak baizik jakiteak min ematen zigun. Eta euskarak sufritzen zuen eraso, pertsekuzio latza, —*hable usted en cristiano, hablen ustedes en español si no quieren que les denuncie*—, eta izparringiak gaztigatuen izenekin zekarzkien isun zerrendak sutan jartzen gintuzten.

Baziren, halere, zenbait ixtorio, txiste eta izkirimiri irribarrea sorrarazten zigutenak bai geure buruen kontura, bai besteenen lepotik.

— Ez dakikela zergatik deitzen zaien «tostados» falanjistei?

— Ezpa ...

— Beti "Cara al sol» ari direlako.

— Ona, benetan, hi, eta ez dakikela hik, zergatik deitzen dituzten erreketek "Los millonarios».

— Ezta ideiarik 'e.

— Bada beti *Cueste lo que cueste, hemos de ganar* ari ditukelako.

— Ederra, hi.

— Bai, horixe.

Dena den, ez genuen oraindik entenditzen ahal, ezin konpreni genezakeen frantses katoliko zenbaiten itxikeria eta seta, zeren halabeharrez gaiztoa bazen Errusia eta Estalin hartzea laguntzat, alegia, gorriak eta errepublikanoek egin zutena, eta bide batez gu Errepublika defenditzera atera ginelako, ezin sartu zitzaigun buruan nola kontsidera zezaketen guztiz santua

1936KO SANTAKRUTZAK

faxista amorratuak ziren doixtarra eta italianoa, alegia, Hitler eta Mussoliniren lagun izatea.

Familiatik urrun luzaro honela bizitzea, ordea, ez zen bizimodua. Ameriketako aukera ere bazen eta adiskide batzuek halaxe egin baitzuten, pentsatzen hasi nintzen ez ote zen hobe Bordeleko portutik hilabetero Venezuela aldera itsasoratzen zen ontzian, transatlantikoan abiatzea, lehenbiziko bakarrik eta gero han lana eta bizimodua antolatuak izatean familia hara eramatea.

Egun batez, ordea, hartu nuen urrutizkinez abisua seme—alaba zaharrenak ama eta aitagarrebaren arrimuan Ziburura helduko zirela. Alabaren oihuek telefonotikan, aita etorri agudo, esanez, bihotza saltoka, irten nahian bezala utzi zidaten, Eskatu nion, bada, nagusiari egun pare bateko baimena seme—alabak ikustera joateko.

Arratsalde hartan bertan hartu nuen trena eta gauerako Ziburun nintzen. Donibaneko geltokitik zubia pasara zuzen—zuzen abiatu nintzen Arintasuna ostatura. Hantxe aurkitu nituen ni iritsi nintzenerako zortzi urteko semea, Joakin, eta bost urteko alabatxoa, Marikrutz, nere emazte Luixarekin.

Jantokiko txoko bateko mahai inguruan nituen zain nerekin afaltzearren. Bazuten, bai, zer kontatua. Hura nere gozamen! Lehen musu eta besarkaden ondoren, jakiteko irrikitan bainintzen, hasi nintzaion emazteari galdezka.

Gerra urte gezur urte, esa era zaharrak dioenez, eta duda gabe egunkari askotan irakurritakoak ezpal berekoak ziren. Ametsa iruditzen zitzaidan han laurok horrela, elkarren ondoan eskuak loturik ikustea, baina egia zen hainbeste aldiz amestutako hura.

— Zer berri?

— Badakizu joan zinenez geroztikan dena nahastua dabilela. Zure lehengusu Joakin, Peliarkoa, profugo deklaratu dutela, Prudentzio Salaberria eta beste batzuk bezala.

— Bai, besteok bezalaxe.

Patri Urkizu

— Zergatik ez zara bueltatzen gurekin?

— Baina nola nahi duzu bueltatzea, badakizu itzultzen banaiz zer espero dezakedan eta. Nor da orain sekretarioa udaletxean?

— Fidel Otegi jarri dute berriro lehen postuan, eta bere alaba Doloresek laguntzen dio paperen artean.

— Badakizu zer irakurri nuen lehengo egunean *El Diario Vasco*—n?

— Zer?

— Bada, herriko kronikan zetorren, alegia, kai aldera iristen ari zirela arrai gorri batzuek eta sarea prestatua zeukatela eskapatutako korkoiak bertan harrapatzeko.

— Arrazoa duzu. Goixko izango da agian, eta oraingoz hemen jarraitu beharko duzu.

— Euskararekin zer ari dira ere?

— Bai, hori penagarria da. Begira, lehengo egunean nere aizpa]oxepinaxekin tranbian gentozela Uliatikan etxalderantz, noski, kasteilanoz hitzeginez, badaezpada, hantxe entzun genituen Pasaiako bi arrantzale euskaraz eta inspektore batek ehun pezetako multa ezarri zien.

— Eta zer esa ten du zure aitak orain gauza hauetaz?

— Ezerrez. Nahikoa badakizu nolakoa den. Ez da sekulan kanbiatuko. Ez nuen uste gure aita horrela portatuko zenik bere alabarekin.

— Nerekin Ameriketara joateko, Venezuela aldera prest al zeundeke? Inmigrazio Batzarekin harremanetan jarriz gero han sartzeko legeak eskatzen duena lortu dezakedala uste dut, eta han hobeto biziko ginake. Argentinako gobernuak ere errefuxiatuentzat ateak irekiak ditu, badakizu gainera han euskalduna esatea gizatasuna, ondradutasuna eta gizatasuna aipatzea dela.

— Herria eta ezagunak utzi, ezezagunen artera bizitzera joateko. Ezta pentsatu ere. Ni behinik—behin ez. Zuk egizu nahi duzuna.

Gaua elkarrekin igaro eta, hau zoramena, hurrengo goizean oraindik hantxe zeuden bi seme—alabak eta emaztea. Ez zen amets hutsa.

1936KO SANTAKRUTZAK

Mundu honetako pozek eta atseginek, ordea, ez dute luzaro irauten, jakina den bezala, eta ezin gintezkeen han gelditu. Berrero, bada, bi zati egin zen familia eta neri euskal herritik urrun partitzeko tenorea iritsi zitzaidan. Hendaiaiko geltokiraino lagundu nituen eta hantxe agurtu. Martín Ameztoty genuen beribilez eraman gintuena Ziburutikan. Hura bai zela gizon fina!

Batzuek al de batera eta besteak bestera. Bordeleko bidea hartu nuen berrero, hemen hasitako lanak bukatzera, baina bidea herri eta familia minez ezin luzeago egin zitzaidan.

Garai tristeak ziren haiek benetan erbesteratuentzat. Eta ha laxe izan da beti paperik gabeko errefuxiatu pobreentzat. Janaren truke irabazi tipiko lana erruz. Holaxe igaro genituen beste zenbait hilabete, eta jendarmeez hemendik ere bidali egin baikintuzten, Ziburura itzuli ginen, gure betiko kabira, ezaguera zaharren ate joka, laguntza eske, edo bederen egun batzuren aterpe bila.

Hemen ere zerbait ahoratu behar bai, eta neronek prestaturiko aparejo batzuekin puntalera joaten nintzen arrantzara. Han beti arian, arian zertxobait harrapatzen .nuen. Fanekaren bat, muxarren bat, doradaren bat, lupiren bat, korkoirik ere ez zen faltan izaten.

Bestetan, txirlatara joaten nintzen ailtxur txiki bat eta otarretxoa besotik zintzilika neukala. Bildutakoak batzuetan lagunaren arteko otordua ontzeko balio zuen, bestetan taberna ezagun batean saltzen genuen bi sosen truke.

Honi galdetu, hari galdetu, azkenean jakin izan genuen andoaindar batek, Barriola izenekoak, bazituela Condon—en ontasun batzuek eta bi morroiren beharrean aurkitzen zela. Bata bere baserrirako, eta bestea, mediku adiskide batek zeukan jauregi baterako.

Gogoeta haundirik egin gabe, hantxe joan ginen, bada, lan bila italiano eta frantsesen artera, oraingoan, euskaldunen lagunartea utzirik.

Condon—go paraje urrun haietan, Bordele bezain urruti eta Pabe baino haratago zegoen herri arrotz hartan bi igande nituen libre hilabetero hala hautatuz gero. Baina nora abiatu, ez ezaguera, ez dirurik gabe?

Patri Urkizu

Anaxtasio zegoen baserrira hamabostean behin inguratzen nintzen kontu berritzera, eta bide batez behiak zaintzera. Beste goxotasun bat zeuzkaten harekin nituen elkarrizketa eta berriketa luze eta lasaiek, eta ez maisurik gabe erdixka eta gaizki ikasitako hizkuntza nahasiaz frantses eta italiano artean nituenak, dioxozko paktu famatu hura zela medio.

— Zer uste duk, gerra luzaroko dihoakigula, ala ez?

— Ez zekiat. Eta hik, Madrid eta Bartzelona eroriko direla ala ez?

— Erori ez zekiat, baina bota behinik—Uehin botatzen dizkik abioiak Francok usoak bezala. Ehiztari ona egina zio.

— Hala duk bai. Sanjurjo. Mola. Eta orain bere anaia Ramón. Oroitzen haiz zein nolako azaina egin zian Plus—Ultrarekin, ezta, itsasoa pasa eta Buenos Aireseraino joan zenean.

— Bai, baina hori txoriburu bat izan duk beti. Monarkiaren kontra orain, gero Errepublikaren alde, eta azkenean bere anaiarekin.

— Akabera ederra izan dik, bada, Mallorcan.

— Bai, gureak bezalaxe egin dik bai, eta besteenak ere laster egingen dik.

— Arrazoia duk. Oroitzen haiz Koxmek kantatzen zuenaz, ezta?

Mussolini, Mussolini,

Mussolini traidorie,

arma barik atrapauzu

Euskalerriko jentie.

— Bai, eta Bermeoko emakumeek abesten zuten beste hartaz ere. Ez dituk batere pozgarriak:

Bergaratikan, Bergaratikan,

Bergaratikan urten genduan,

1936KO SANTAKRUTZAK

antxintxiketan Bilbora,
Bilbotikan estu ta larri
joan ginan Cabezónera,
Cabezónetik Molinasea,
Molinasetik Nauara,
Navatik Auilésera,
Avilésetik barrura.

— Zorionekoak gu, beraz, preso ez gaudenez.

— Baina erbestea ere ez duk gozoa.

Horrela igaro ziren zenbait hilabete, kezka eta zalantza artean, gerrikoa estu eta sabelak ia bizkarra jo arte. Agindutako saria ehun liberakoa zen, apenas iristen zitzaigun, ordea, tabakotarako. Leku hartan ez zegoen, ez, luzatzerik eta igande batez joan nintzenez lagunarengana bisita, honaxekoa adierazi nion:

— Banihoak Donibanera berriro. Nahi duk nerekin etorri?

Bada, ni ere bai. Ez diat deus ere egitekorik hemen bakarrik, aspertu—aspertu egin nauk, bai, eta nahiago diat okerxeago bada ere, etxetik hurbilago egon. Nolanahi beti albisteak lortzeko errazago izango duk.

Erabaki genuen, bada, alde egiteko garaia iritsi zitzaigula. Ez genuen pasa asti haundirik balisa edo maleta, berdin dio, antolatzen, ez, eta biharamonean Condon—go auto bus a hartu genuen. Tarbesera iritsi eta hemendikan Hendaiaarako trena hartzeko jaitsi ginen.

Egun osoa eman genuen bidean. Gogoan daukat San Martin bezpera zela. Nork esan oloa, garia eta garagarra erein ondoren gentozenik? Azkenean, bai, berriro Donibane Lohitzuneko geltokian ginen eta betiko jendarmeak sala atarian.

Izkutatu ezina genuenez gero Ziburuko ohizko bizi⁷⁶ lekura heldu bezain laster hantxe genuen agindua betiko lelo berarekin, alegia, jendarrneriatik pasatzeko, eta hemen:

Patri Urkizu

— *Vous n 'avez pas des papiers en règle.*

Paperik ez izaki erregelan, eta paperik gabe ezin egin lanik, eta lanik gabe nola arraio bizi, ez baginen besteren lepotik bizitzeko jaiok? Nahitanahiez zerbait pentsatu beharra zegoen, edo berriro hanka egin beharra. Ernegazioak sutzen eta amorratzen gintuen. Halere, inoiz ezin modu txarrik adierazi :

— *Bons jours, ... , merci, merci ... adieu!*

— *Adieu!*

— *Au revoir!*

Apal—apal eta erarik hoberenean. Arraioa, ez zen hura batere erraza! Aitajaunik gabe ezin inora jo, eta jaioterrira itzultzea pentsatze hutsak gogoeta beltzenak zekarzkidan. Erabaki behar zen, ordea, zerbait, baterako edo besterako erabaki sendo bat hartu. Baina zein nolako aukera gelditzen zitzaidan trantze txar hartan?

Behin joxek eta biok erabaki genuen etxekeekin hitz egitea Bidasoa ibai ertzean, Biriaturko azpian. Igandea zen eta egun pasa egingo genuen Don Bermejo, Andoaingo apeza, orain Biriatur erretor zenaren meztara joanez. Ibai ertzean, bestaldetik, berrogei metrotik berrogei metrora hantxe zeuden soldaduak muga zaintzen. Abisua pasea baikenien etxekoei hantxe agertu ziren esan bezala orduan puntu—puntu. Elkarrekin zeuden Inaxi Arbelaiz, Joxeren andregai bere aitarekin etorria, eta nere emaztea alabatxoarekin:

— *Aita, pasa honera ez da ia deus ere eta...*

Hogeita hamar metro ez ziren bi aldekoen artean, baina ibaizainek elkarrekin egotea eragozten ziguten, eta oihu haiek era berean bihotza hausten. Hobeto zeudela, amari ez zitzaiola lanik falta, Joakin, eta Iñaki eskolan aurrera zihoazela, osasunez hazten ari zireta, eta ea gerra laster bukatzen zen elkartasunean berriro bizitzearren ...

Hura bai zela benetan gogorra! Nahita ere ezin etxeratu.

Sekulan baino ederrago ikusi nituen ama—alabak, argalago ere bai, eta tristurak eraginik edo, oso hitz gutxi egin zuten. Berriak izatean elkartzeko

1936KO SANTAKRUTZAK

aginduarekin despeditu ginen, eskuaz musu luze bat boteaz. Ibaiak zeramatzan ur arre haien indarrak agudo itsasoan baretzera zihoazen bezalaxe gerraren gorroto odoltsu haiek pakeak itzaliko ote zituen?

Ondoren Biriatura igo ginen. Hantxe ari ziren batzuk pelota partidua jokatzen, nor gehiagoka amorratuan, eta leiho, errebote, txoko eta bi paretekin borrokan. Partidua bukatu zenean hantxe aritu ziren bertso saio ederrean kantari Anbroxio, Kalbo gaztea eta Basarri ospetsua. Honek bertso zahar haiek oroitu zituen:

*Esku batean Santokristua,
beste eskuan pistola,
erlijia ezta ola,
demoniyo arrayua.*

Anbroxiorekin eta Kalborekin makina farre egin genuen goardia zibila eta kontrabandistaren arteko 78. elkarrizketa asmatuarekin. Nola bidean zetozela ikusia zuten mugazain bat segarekin, eta hark segan eta beraiek meza ematen ez zuketela alde haundirik kantatu zutenean.

Ondaren ostatuan sartu eta Joxek ongixko ezagutzen zuen Kaxildarekin aspertu ezineko berriketa izan genuen bazkal ostean kafeak zerbitzen zizkigun bitartean.

— Joxe, ez nauk sinistuko baina nik hemen ere, Biriatu paketsu honetan gorriak ikusten ditiat.

— Nola gorriak? Ez al ditun bada txuriak hemengo denak?

— Oraindik lelo horrekin zabilzate?

— Zer bada?

— Neretzat denak berdin dituk. Erran nahi diat hemen daukadan familia aitzinarazteko gorriak ikusten ari naizela.

Patri Urkizu

— Horixe esaten dinat nik ere. Baina sos askorik ez izan arren, ez ginauden kartzelan, ez, eta libre ginauden bitartean ...

— Eta osasun pixar batekin ...

— Bai, horixe, neri behinik—behin ez zait falta lanik eta.

— Lasai egon hadi. Nere lagun honek lagunduko haun eta sukaldean ...

— Ez hasi hemen adarrrik jotzen.

— Hori nahi likek ba ...

— Denak berdinak zarete, berriketa asko eta azkenean inor ez duk gelditzen hemen lanak arintzera. Akabatu dadila, bai, lehenbailehen gerra nazkagarri hori, ez bagaitu gehiago amolatu nahi.

— Izorratu esaten dun.

— Berdin dion. Izorratu, izorratu behinik—behin ongi izorratu gaituzte oraingoan. Gorriak direla, goardia zibilak direla, jendarmak direla, ez dugu bakerik nehoiz, eta ez ditek horiek bi sos ere hemen uzten.

— Hartu itzan, bada, txanpon hauexek, bapo bazkaldu dinagu gaur eta.

— Nahi duzue beste kafetxo bat?

— Bai, baina azkar alde egin behar dugu.

— Adio eta hurrengo arte!

Nere adixkide Anaxtasiok, azkenean aurkitu zituen bere buruaz erresponsibleak egiten ziren bi herritar eta herrira itzuli zen. Nik, ordea, egoera hartan ez nezakeen bueltatzeko pentsamendurik ere izan. Hala bada, batera eta bestera nenbilela Bigarren Mundu Gerratea piztu

V

ALEMANAK DONIBANE LOHITZUNEN

BIXINTXO egunez deklaratu zioten gerra elkarri Ejekoek eta Aliatuek. Ongi gogoratzen naiz egun hartan urtero bezala prozesioa egiten baitzen herrian barrena Ziburun, eta arratsaldeko ordu bietan hasi ziren kanpandorreko ezkilak jo eta jo galerna heltzen dela abisatzen zenean bezala. Iritsi ziren jendarme batzuk eta Herriko—etxeko mutila han ibili zen batera eta bestera paper batzuk zabaltzen eskuz—esku, esplikatzen zutenak gizon guztiek soldado joan behar zutela eta inori ez zítzaíola eskapatzerik izango, eta desertatzen zuenari gerra epaiketa egingo ziotela eta heriotza seguru izanen zuela Frantziari traizioa egiteagatik.

Baina hurbil samar, ahantzi gabe zegoen oraindik ilehen gerla haundia. Nor ez zen oroitzen nola hustu diren herriak gazteez eta nola eraman zituzten Verdungo infernura eta nola ez ziren asko eta asko itzuli? Hala bada, euskaldun gazte zenbait igaro ziren, antzinaantzinako ohiturari jarraikiz, oraingoan ere bestealdera, eta kontrabandotik edo ezagutzen zituzten zenbait herri' mugakide zirenen baserrietan gelditu ziren.

Apezak pulpitotikan ha si ziren predikatzen desertoreek oso etorkizun beltza izango zutela, ezina izango zitzaíela berriro herrira itzultzea haiei eta haien haurrei ... Baina alferrik, aurreko gerra zer izan zen jakin zuten laborari frankok soldaduskari uko egin zion, bai baitzekiten hiritarrak beti bezala erretaguardian

Patri Urkizu

geldituko zirela fabriketako lanetan, intendentziakoetan, erabar, eta beraiek frentera joan beharko zutela, zuzen zuzenean.

Guri, ordea, lan eskubidea eman ziguten alemanak frantsesekin gerran sartzeari esker. Antza, oraingoan denon beharra zeukaten, baina lehen—lehenik Pabera joan behar izan genuen paperak betetzera eta medikuaren errekonozimendua pasatzera. Honek, osasunez ongi geundela, lanerako aski indar bageneukala eta zinatu zizkigun paperak. Hara bada, non lehen txarrak, gaiztoak ginenak orain derrepentean onak eta zintzoak bihurtu, zorioneko gerra madarikatuari esker, edo hobe esateko, beharrari esker.

Pabetik egun berean etxeratu ginen, esan nahi dut, Bixenta, Ziburuko etxekandrearengana, eta orain paperak eskuan, jendarmeeek molestatu gabe, bageneukan nahiko lan eta aukera izerdiak botatzeko Larramendiren aroztegian.

Tailer hartan hamar ordu lanean, jotake, zortzikoen 82^o irabaziarekin. Ez ginen, ez, ordea haserre Donibanen topatutako lanarekin, orduantxe hasi baikinena juxtu juxtu eta poliki—poliki jantziz eta sosez homitzen.

Halere, pena haundia sentitu nuen jakin nuenean Atarrene idazle jatorra udazken hartan hila zela, Ziburun bizi baitzen, eta ezaguna baikenuen. La Roseraie—ko eritetxera eramane eta han omen zuen eman azken amasa. Urte hartako Eguberriak ere tristeak izan genituen. Laugarren Olentzaraa etxetik at, laugarren Gabonak erbestean. Lagun artean beti bezala eta Arintasunean abestu genuenean

*Ator, ator mutil etxera,
gaztainak ximelak jatera,
gabon gaba ospatutzeko
aitaren ta amaren ondoan.*

zastada mingots batek kozkatzen zigun barren—barrenean, malkoei ia ezin eutsirik, ikusten genituenean adiskideak negarrez herri—minez.

1936KO SANTAKRUTZAK

Urtarrilaren bukaeraldera Tomax Garbizuk gonbítea eginik Pergolako Casinoan izan ginen lehen gerrako gudari zaharren alde antolatu zen funtzio batean. Hantxe ikusi genituen Beaugues prestidijitadorea, Laffargue kontalaria, Ibarrando sopranoa, Sagarzazu tenorea eta Tomax bera pianoa jotzen. Han ginen euskaldun artean gira atsegina zegoen eta afari ederra egin genuen, baina ez genuen ahanzten ahal inoiz erbestean geundela.

Rafael Olazabalek bazuen Donibaneko errekondoan ola haundi bat eta honen inguruan makaldi bat inork bota nahi ez zuena leku lintziratsua zenez gero. Hartu genuen, alde onak eta txarrak luze eztabaidatu ondoren, egitekoa Joxek, Tomasek, Axalak eta laurok.

Lau hilabeteko lana izan genuen. Astotzarren gis ara jipoi galantak gorputzari emanez, guk makalak bota izerdi patsetan, eta Olazabalek irabaziak eramanez. Lauko taldea ginen bostehun metro kubikorekin borroka latzean. Itzainak eta gainerakoak ordaindu arren guri agindutako bost mila libera haiek ez ziren inondikan agertu.

Ohi bezala esneketariaren ipuina gertatu zitzaigun. Halere, aurreratu genuenarekin arropa batzuk erosi genituen. Oinetako berriak eta bizikleta ere bai. Berrehun libera eta zerbait gehiago ordaindu nuen txirrinda. Ez nekien ordurarte gainean ibiltzen, baina erorika batzuk emanez ikasi nuen. Aitzin—gibelerat, harathonat, joan eta etorri ibiltzen ginen, Donibane Lohitzunetik Hendaiarainoko bidean, eta batez ere Bidasoako ibaiertzeko inguruetan.

Eginarazi nizkion, bai, bizikletari makinatxo bat atze—aurrera eta jira—bira. Behin Dantzarinea ondoko ostatuan arotz baten beharra zeukatela, bestcan Kanbo aldean, orain Ziburun, gero Donibanen. Gaur Hendaian eta bihar Sokoan.

Taila eta arotz lan franko egina naiz bazterretan. Kutzak, armairuak, marginuak, mahainak, aulkiak, apalak... Beti, noski, merkezurrean. Sartzen nituen orduen benetazko balioa ordaindu izan balidate ez nintzatekeen hain

Patri Urkizu

pobre ibiliko, baina ez zait sekulan laket izan asko kobratzea, eta horrexegatik utzi nuen, guztiz gogokoa neukan taila lana ...

Oraingoan ere gure pozak ezin zezakeen luzaro iraun, alemanak sartu eta arazoak sortzen hasi baitziren. Armistizioaren zinadura ekainaren erditsutan egin zuten frantsesek eta alemanak hogeita zazpirako hasiak ziren tropa alemanak Lapurdiko kosta guztia okupatzen, kainoiez portuak betetzen eta bunkerrez hondartzak eta kostaldeko muinotxoak.

Atlantiko aldeko horma altxatzen ari ziren Grün—en plangintzen arabera Irlanda bertatik asaldatzeko asmotan. josi zituzten, bada, hondartza guztiak alabrez, preso zelaietatik ekartzen zituzten langileek antolatuta. Esaten zutenez Baiona eta Angeluko partean, polo belardietan hesiturik zituzten kanpo konzentrazioak, eta jendea hara eramaten hasiak ziren. Gehienak beltzak amen ziren, Afrikako soldadu somaliarrak, karreterak, bunkerrak, karga eta deskargan egiteko erabiltzen zituztenak.

Hendaiako armategia ere bahitu egin zuten, baina lehendik zebiltzan langile guztiei bertan jarduteko aukera eman zieten. Bertan nituen lanean Espainiako gerratik ihes egindako adixkide batzuk eta beldur izan ziren hasieran berriro fronteran jarriko ez ate zituzten alemanek, goardia zibilei entregatuz, baina ez zen hala gertatu.

Jainkoari eskerrak ez zela gurekin ere horrelakorik suertatu!

Baina Baionan, batez ere Saint—Esprit—eko auzoan eta Ipar Euskal Herrian bizi ziren judu askorekin gertatu zen. Konzentrazio zelaietara eramane zituzten, eta judu bat baino gehiago laguntza eske etorrita, bestaldera pasarazteko antolaturik zegoen sarearekin kontaktoan ipini izan dugu, Florentino Goikoetxea eta Katalina Agirre ziren batez ere arduratzen zirenak egiteko horretaz. Baina juduak ez ezik makina abiadore aliatu, preso zirenak eta gero ihes egitea lortu zutenak, lagundu genituen frontera pasatzen.

1936KO SANTAKRUTZAK

Gu ez ginen oso ez ezejale ezta aliadozale. Ez bat eta ez beste. Begira, nola egon gintezkeen ados Francoren aliadoak zirenekin? Eta bestetik, Frantzian hain tratu txarra hartu ondoren ez ginen, ez, hauen oso zale.

Uste zuten batzuek inongo dudarik gabe, argi eta garbi gerra alemanek irabaziko zutela, eta alferrikakoa zela kontra jartzea. Beraz, hobe zela alemanekin bat eginez, Euskaldunen Errepublika bat edo sortzea, konrutan harturik gu arraza garbia ginela eta euskara jakintsu alemanek zenbait maite zuten.

Gainera gurekin ez ziren gaizki portatzen. Kaleko mutil koxkorrei txokolatea eta gozokiak banatzen zizkieten. Esaera zaharra da gainera txarrerako ez dela batu behar inoiz ezta aingeruekin ere, onerako, berriz, deabruarekin ere ituna egitea zilegi dela. Kontatuko dizut gainera lagun bati gertatua.

Joan zen bada, goiz batean arrantzara ordu pare bateko bidean, eta han agertzen omen zaie derrepentean, burnizko bale izugarria balitz bezala submarino bat. Igo omen zen haien kapitaina eta derrigorrezko agurren ondoren galdetu omen zion patroiarri:

— Heil Hitler! Spanischen?

— Non. Baschen.

— Francofilo oder germanofilo.

— Non. Teofilo.

— ja, ja, ja.

Eta halaxe deitzen zen gainera. Teofilo Etxeberria.

Haren algarak eta farrak ia Hondarribi aldeko farotikan ere entzun amen ziren. Arrain—kaxa batzuk, ardo garrafoi bat, pattar botila batzuk ere saldu amen zizkion eta haiek ongi ordaindu ere. Farrez urazpiratu omen ziren, *tu Teofilo* errepikatuz, eta *Heil Hitler!* diosala oihuka agurtuz.

Halere, eme ibili beharra zegoen. Hantxe baitzebiltzan batetik bestera, oso gertu. Frantziako arrnadari kendutako kainoi batzuk ipini zituzten Sokoako

Patri Urkizu

gazteluan Donibaneko portu sarrera debekatzeko. Zurezko zubi haundi bat ere eraiki zuten *Hôtel d'Angleterre* aurrean submarinoetara janariak eta edariak pasarazteko. Itsasontzi batzuek ere errekisatu zituzten eta goizeko zortzietatik arratsaldeko seiretaraino bakarrik uzten zuten itsasoratzen. Oholezko hesi bat ere altxatu zuten geltokia eta udal—etxearen artean iristen zirencan arrantza ontziak bertako arrainak behar ez zuten uretatik irristalatu ez zitezen.

Nik arrantzan pretilaren gainetik Ziburuko ibai ertzean egiten nuen bitartean kainabera eskuan, hantxe ikusten nituen beren beribiletan igarotzen mandoak zirenak, eta besteak mandoek tiraturiko gurdi arin batzuetan. Aurpegi alai, buru gorri, uniforme dotoretan jantziak, botak beti txaroleztatuak, planta ederra zeukaten haiek.

Ez zitzaaien ez, antzematen inongo goserik paseak zirenik. Ziotenez sarao, bankete eta dantzetan igarotzen zituzten gauak, eta ez txanpain frantses haberenik, ezta neskatxa ederrik ez amen zitzaaien falta.

Frontera haientzat irekia zen zabal—zabalik. Baina guretzat?

VI

SORTERRIAN BERRIRO

ASPERTU nintzen, bada, bizitza hartaz eta gertatu behar zitzaidana gertatu, itzultzea erabaki nuela.
Mila bederatzirehun eta berrogeiko Santakruzak ere ongiasko gogoan dauzkat.

Ze ... irailaren hiruan, ilunabarreko seirak inguruan bestaldeko lagunak eta arazoak alde batera utzita, Irungo mugarantz abiatu nintzen, sasi—mugara hobeto esateko.

Semetxoentzat soineko pollit batzuk erosi nituen, emaztearentzat lepoko kate dotorea eta eskumuturrerako pultsera eder bat nere hutsuneaz pixkat ahanzteko, neretzat zilarrezko SIGMA ordua jakiteko eta banoa Hendaian aurrera.

Garaiz bainenbilen lehenengo pausuak Hendaiaratu nintzenean kaiaruntz eman nituen. Begien aurrez aurre, baina orain eskurago zeuden Jaizkibel mendia, Guadalupeko Amaren elizatxo, gaztelua eta aldarneneko eliz dorre ederra. Iparragirren bertsoak zetozkidan burura, erdi zoraturikan eta begiak zabal—zabalik nituen.

Hantxe bertan, Santiagoko zubian behar nituen itxaroten emaztea bi gizonekin, Iñaxio Pikabea eta Don Mateo Alberdi, Martinen anaia. Beldur nintzen, halere. Aduanara iriste orduan, apaiza ez zen ageri, potto egin zuen,

Patri Urkizu

hitza emana izan arren, hitza janez. Nola—nahi fidatzeko gero. Non fida han gal, dio esaera zaharrak, eta ez zaio arrazoirik falta.

Kezkati pasa nuen frontera, baina banuen erresponsible bat hantxe eta utzi ninduten pasatzen. Emaztea eta gizon harekin batera goardia bana atze—aurrean nituela Iruneraino —lagundu— ninduten. Hura lotsa! Gaizkile bat banintz bezala inguraturik ibili beharra kaleetan zehar! Hemengo aldean bainintzen zertxobait lasaiago nengoen, baina ordena emana zidaten bi orduren buruan komandantziatikan pasatzeko.

Bazkaldu genuen bada Irungo *Axano—enea* ostatuan, beti aurrean bi goardia zibilak neuzkala, bada ez bada, inongo tentaldirik eduki ez nezan, eta hantxe presentatu ginen bazkalondoan koartelean. Bertako papeleo guztia, galdera zatar guztiak hobe ahaztutzea, ez dira eta batere gogoangarriak, gustara oroitzeko modukoak.

Handik berriro taxia hartu eta Errenteriako goardia zibiletara bidali ninduten.

Arratsalderako etxe aurrean nengoen herriko plazan. Jendea harri eta zur gelditzen zen neri begira. Txapelgarriak ikusi nituenean bihotza berriz pil—pilean jarri zitzaidan ...

Seme—alabak, aldiz, berehala inguratu zitzaizkidan. Hura poza nerea! Txikiena, Joxeba falta zen. Lau urte bete berriak behar zituen, eta amonarekin baserrian, Olatzarren omen zegoen. Dena den, noizpait iritsi zitzaion notizia aita etxeratua zela eta hantxe nuen menditik jaitsia korrika minutu gutxi barru nere besoetan.

Pardela ireki nuen eta hasi nintzaien janariak erakusten, gero eta haundiago egiten ari zitzaizkien begien aurrean. Arratsalde hartako afarian lau urteko baraua hautsi zen Patti Txularrarenean, haragi eta ogi zuririk ez baitzen, sagardo txarrik aspaldiko partez, faltatu.

1936KO SANTAKRUTZAK

Biharamonean herriko agintariengana azaldu behar nuen. Alkate berria, Gobernadore Zibilak hautatua, Patxi Salaberriak, eta honen ordekoa zen Ináxio Lopetegik herrian jarraitzeko baimena eman zidaten.

Ez zen hura aski, eta egunero goiz eta arratsaldean goardia zibiletan agertu behar nuen. Kontuz eta eme ibili beharra neukan esaten nuenarekin, falanjista eta txapelgorri integristen belarriak oso luzeak baitziren eta non nahi aurki baitzitekeen herrian salataririk. ..

Irailaren zortzian Guadalupeko Amaren jaia ospatzen zen eta, zorretan bainintzen, pentsatua geneukan hara igotzea eskerrak ematera. Baina hara non goizeko lauretan sukaldean antolaketak egiten ari ginenean isilisilik, atea jo zuten eta hantxe nituen txapelgorriak nere bila etorriak.

— ¿Patricio Urquizu Marichalar?

— Servidor.

— Venga con nosotros.

— Pues ...

— Cállese y obedezca la orden.

Herriko espetxera eraman behar omen ninduten, Caudillo—aren etorrera zela eta. Ez zen komeniko nonbait Ama Birjinari bisita egitea eta ordezkartzelari egin behar. Halere, ez nintzen han bakarra. Goizeko zortzietarako dozena bat gizon bilduak ginen hantxe, zikinkeria besterik ez zen zoko lizun hartan, eta zerbait txukuntzen ahalegindu arren ez zuen askorik igerri.

Lista pasatzen zuten goizero goardia zibilek eta jateko etxetik eraman behar izaten ziguten bakoitzari bere xakotea.

Haietxek izan ziren, bai, gerraondoko nere lehen Santakruzak. Preso eta familiaren berotasunik gabe, lau urte luze eta triste erbestean pasa eta gero.

Francok Donostiatik alde egin zuenean, Orioko traineruari bandera eman ondoren, ohorezko estropada *Amaikak Bat*—ek irabazi zuen arren, esan ziguten berriro jeneralisirnoa etorri arte Donostiara lanera joan gintezkeela. Noski, lana zeukanak. Gauero, derrigorrez, espetxera itzuli behar genuen lotara.

Patri Urkizu

Azkenean aske utzi gintuzten. Halere, astero—astero goardia zibiletan agertzeko obligazioarekin.

Nola igaro ziren garai haiek zuek ere ezagutzen dituzue. Beldurra zen nagusi, izua hezurretaraino sartua ziguten, eta isilik sufritu behar, erantzuteko gogoia gaindituz hainbeste eta hainbeste irain:

— *¡Hable en cristiano!*

Hau lotsagabekeria! Gure etxean, gure lurrean bizi, eta jainkoak emandako hizkuntza maitagarrian hitzegiteagatikan hura entzun beharra ...

Egundalakoak izan ziren, bai, garai haiek eta ez ziren, ez, berehalakoan igaro. Seme—alabek gero eta behar haundiagoak zituzten. jaten eman, jantzi, eskolara bidali ...

Dena eskas genuen familia hazteko. Lehendik haundia baitzen beharra, gu azaldu ginenetik zertxobait arindu arren, ez ziren nolana hikoak gertatu eta nahi bezain azkar igaro urte gogor haiek. Nola iraun genuen, eta nola atera ginen denok aurrera, jainkoak bakarrik daki.

1936KO SANTAKRUTZAK

Patri Urkizu

1936ko Santa Krutzetatik hasi eta 1940ko iraila bitarteko epean murgildu da Patri Urkizu, fikzionatzen zailtasun handirik gabe, bere aitak Espainiako Gerran ibilitako bide eta pasadizioak baititu kontagai. Ezin ihesi baten kronika dela, esan daiteke, “Zoazte hemendik” [Lehen edizioaren titulua]. Herri euskaldun txiki bateko abertzale ezagunak, gerraren lehertzeak etxea utzi eta desterrura daramatza protagonistak. Gerraz inguraturik, Ipar Euskal Herrian aurkituko dute, azkenean, aterbea. Baina ez lasaitasuna. Mugaz bestaldera ere mugimendu etengabea, etxetik urrun eta baldintza zailetan. Etxera itzultzeko asmoz baina ezinean, derrota eta ezintasun handi baten kronika da oroimenezko ariketa ere baden liburu hau. Aitaren gerra garaiko pasadizoen kontaketa oroimenari, Patri berarenari, eta hein berean herri batenari, hautsa kentzeko ariketa da. Historia handia osatzen duten milaka istorio txiki horietako batzuen kronika. (Mikel Elorza)